



Biztanleriaren gora-beherak

Arg.: M. Albiu

KIROL OSASUN ZERBITZUAK

KEMEN

☎ 16 22 26

Faxa: 16 22 27

Elosegi, 14

LAZKAO

ESKI KANPAINA 97 ASTUNen

MARTXOAK 22 - 23

Irteera: larunbata 5:30etan. Itzulera: igandea 21:00etan

**Autobusa, hotela pentsio erdian eta forfait-a:
11.900 pzta.**

Aukeran ikastaroa, eskien alokairua eta aseguru
Izen ematea martxoaren 14a baino lehen



Denon eskura.

Alkartasuna Lizeoaren oinarria den ikastola-proiektuak bete betean darrai irakaskuntzan hogeita hamar urte pasatxo egin ondoren.

Ekimen hau martxan jarri zuten gurasoen asmoa hauxe zen, hots, kalitatezko irakaskuntza euskaraz **ikasle guztien esku** jartzea.

Alkartasuna Lizeoaren hezkuntz proiektuak oso harrera ona izan du beasaindarren eta goierritarren artean. Horri esker oso sakon errotu da, bere ia 700 ikasleekin **Beasainen ikasle gehien dituen ikastetxea** bilakatuz.

DOAKO IRAKASKUNTZA:

Eskola Publikoaren antzeko parametrotan finantziatutako ikastetxea.

DOAKO ESKOLA GARRAIOA:

Ibilvia Beasaingo hiri-areatik eginez, eta eskualdeko herrietatik ere bai DBHko ikasleen kasuan.

HAURTZAINDEGI ZERBITZUA DOAN:

Goizeko 7,30etatik arratsaldeko 18,30etara.

JANTOKI SUBENTZIONATUA:

Bazkaria, gehi zaintzeko zerbitzua eta eguerdiko entretenimendua 400 pta. kostatzen dira ikasle eta eguneko.

HILEKO KUOTA:

Ikasle bakoitzak hilean ordaindu beharreko batezbesteko kuota 1.400 pta.koa da; kuota horrekin eskola-materialeko gastuak, eskolako eta eskolaz kanpoko aseguruak eta bestelako jarduera osagarriak ordaintzen dira.



ALKARTASUNA LIZEOA
IKASTOLA - BEASAIN

Foru 8 - 20200 - Tf. 88 26 84 - Faxa 88 18 71 - E-mail: alkarlizeoa@facilnet.es

**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea

Dorre-etxea, 1
(Postetxe gainean)
124 posta-kutxa
20240 Ordizia
Tfnoa: 88 96 12
Faxa: 88 27 19

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Josune Agirre eta Argider
Mujika

Erredakzio Batzardea:

Dionisio Amundarain, Jon Ara-
no, Mikel Albisu, Joseba Telle-
ria, Ane Martin, Loinaz Agirre
eta Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:**

Aitor Calvillo, Joseba Telleria,
Xabier Urteaga, Rufino Iraola,
Izaskun Salazar, Koldo Urresta-
razu, Urko Irastorza, Aitziber
Murua, Josune Aldabe, Edurne
Albizu, Joxepa Madariaga, Juan
Karlos Aldasoro eta Josune Es-
kisabel.

**Fotokonposizio eta maketa-
zioa: GOIERRITARRA.**

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9. Oñati)

Tirada: 6.000 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, al-
dizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



Iazko txiste lehiaketako irabazleak.

**VI. Txiste idatzien lehiaketa,
Korrika 10aren eskutik**

Goierriko Korrika 10eko
Batzordeek VI. Euskaraz-
ko Txiste Idatzien Lehia-
keta antolatu dute. Hel-
duak euskaraz idaztera
bultzatzeko asmotan sor-
tu zen ekimen honek, ur-
tez urte, partehartze eta
arrakasta handia izan du.

Baldintzak betikoak
dira, 16 urtetik gora iza-
tea eta txisteak euskara
batuan edo euskalkian
idatzirik bidaltzea. Txis-
teak, berriz, nahi adina,
martxoaren 19rako bidali
behar dira ondorengo hel-
bidera: "Ordiziako Goiz-
tiri AEK Euskaltegia, 116
posta kutxa, Ordizia",
ahaztu gabe norberaren
izena, abizenak, herria eta
telefonoa jarrita. Hiru
txiste onenen aukeraketa
Goiztiri AEK Euskalte-

gietako ikasleek egingo
dute, eta ondorengo sa-
riak izango dituzte: Zega-
mako Ostatuan afaria bi
lagunentzat; Ordiziako
Haizpe jatetxean afaria bi
lagunentzat; eta Gaintza-
ko Kale-txiki jatetxean
afaria bi lagunentzat.

Partehartzaile guztien
artean, beste hainbat sari
kultural ere zozketatuko
dira.

Bestalde, AEK-koek
txiste lehiaketa antolatze-
arekin batera, aurreko ur-
teko lehiaketara aurkeztu-
tako txisteak argitaratu
dira liburuska batean,
AEKren Euskaltegietan
eskura daitezke.

Badakizu, martxoaren
19a baino lehen bidali zu-
re txistea!

BOTA BERTSOA



Antton Garmendia

San Balentin eguna

Doinua: Pello Joxepe

Beti bezela iritsi zaigu
maitasunaren eguna.
Telefonotik bere galdera
zer moduz zaude kuttuna?
Ederki nago nere maitia,
bestaldetik erantzuna,
oparitxo bat erosi dizut
konpromezu eraztuna.

Berak badaki zer oparitu
orain nerea da pena
zuretzako da nerekin dedan
gauzarikan hoberena
nere bizitza ta etorkizuna
zuretzako baita dena
elkar maitatuz bizitzea da
oparirik politena.

**Eusko Jaularitzako
Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta**

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Euskal irakaskuntza askatu

Azken bolada honetan gauza asko ari gara entzuten "hezkuntzako adituen" ahotik, erreforma dela medio. Irakaskuntzaren hobetzeaz dihardute, sakonean (izaera eta helburuetan) betikoa izango dela jakinik: inposaturiko sistema honen euskarri edo zutabe garrantzitsu bat, demokraziaz mozorroturiko eredu autoritario bat.

Hezkuntz eredu hau ulertzerakoan (geure burua Euskal Herrian kokatuz) 2 azterketa eduki behar ditugu goian:

1.- Alde batetik, Euskal Herriaren identitate nazionalaren zapalkuntzan irakaskuntzak jokatzeko duen papeira. Gure Herriaren ezagutza eta desarroilorako tresna izan beharrean, gu zapaltzen gaituzten estatuen eredu hartzen du; bai maila kulturalen, lurraldetasunari dagokionean eta baita nazionalen ere. Gure izaera, lurraldeak, historia, kultura... alde batera utzi eta Espainia eta Europako "ezaugarriak" "erakusten" dizkigute, geureak balira bezala.

2.- Beste aldetik, inposaturiko sistema kapitalistaren iraupenerako pertsonen "prestakuntza" (zapalkuntzan hobe esanda) duen ardurara. Garbi dagoena da, ekonomian eta produktibitatean (eta ez gizatasunean, elkartasunean, berdintasunean...) oinarritutako sistema kapitalista honek, bere menara

dauden pertsonak behar dituela gutxi batzuentzat aberastasuna sortzeko. Pertsonarobot hauek "heztzeaz" arduratzen da irakaskuntza.

Hau horrela izanik ere, Euskal Herrian ikasle mugimendu indartsu bat sortu eta hedatu izan da ikastetxe-ikastetxe, egoera honi buelta eman eta Euskal Herriak behar duen irakaskuntza lortu nahian.

Horrela, hezkuntz eredu honen diseinatzaileek, beraien helburuak aurrera ateratzeko oztopoak ikusi dituzte eta mugimendua desaktibatzen saiatu dira. Garbi erakutsi dute helburu hau lortzeko edozein bide zaiela zilegi eta honenbestez ikasleen aurkako erasoari ekin diote autoritarismo gordina erabiliz.

Honen adibide garbiak ere ikus ditzakegu gure eskualdeko ikastetxeetan, Alkartasuna Lizeoan ikasleek bizi dutena esaterako. Ikastetxe honetako ikasleek debekatua daukate asanblada eskubidea, ikastetxean kartelak jartzea, ikasleak antolatzea, edozein inkesta egitea, greba egitea (erakunde legal batek konbokatua ez bada behintzat) eta amaierarik gabeko ukazioz beteriko zerrenda amaigabea. Ikasle hauek beraien oinarritzko eskubideak ukatuak daukate.

Ikus daitekeenez egoera larria da, oso larria. Horregatik inoiz baino behar handiagoa daukagu ikasleok antolatu eta borrokatzeko, horrela bakarrik lortuko baitugu

Euskal Herriak behar duen irakaskuntza.

Goierriko irakaskuntzako Jarrai

Zaldibiako Kutxa

(16. orriko jarraipena.)

1.- Berririo sua Kutxan. Lehenengo aldiz erre zutenean, HBk atera zuen komunikatuaren balorazioa egiterakoan, Udaletxean sartu genuen mozioko 3. puntuaren amaieran honela genioen: "hori egin dutenei, berririo egin dezaten, laineza ematen ari da". Zorritzarez, bete-betean asmatu dugu.

2.- Basakeria berri honen aurrean, berririo ere, lehengo gauza berberak errepikatu beharko: ekintza hori indar oroz kondenatu, Txindoki etxeko bizilagunekin solidarizatu; eta, bestalde, orduan aipatu bakarrik egiten genituen HBren komunikatuko zenbait punturi buruz gogoe-ta egin.

3.- Komunikatu horretako puntu batzuk "¿de dónde vienes?, manzanas traigo" gisa-koak dira: nahaste-borrastea, adibide guztiz anakronikoak eta arguziak. Harrokeria eta demagogi punturik ere ez zaio falta: eurekin bat ez daitozen guztiak edota fede txarreko saldukeriazaleak dira, edota inuxente baboak; beraien dira kontzientzia zuzenaren paradigma eta ispilu.

4.- Bitoriano Gandiagak bere arimako lore gorriari eskainitako hitz lirikoak Kutxaren kontrako sua justifi-

katzeko erabiltzeak izenik ez du. Hain zuzen ere, Gernika kixkarratuan erre ez zitzaion lore gorria. Bai, lore gorria da Gandiagarena, eta ez su gorria. Eta seguru gaude Lizardik ere "sua eta ura belau-nez behetik" nahi zituela. Bihotzeko sua, amodiozko sua, amonaren bakezko sua aipatzen ditu Zarauzko poetak, ez suntsipenerako sua.

5.- ZUTek garbi eta ozen aldarrikatzen ditu giza eskubideak. Baina ez, batzuek bezala, batzuentzat bakarrik, pertsona guzti-guztientzat baizik.

6. Debate hau azken puntu honetan zentratu nahi genuke, ordea: herri bat, estatus edo marko politiko honetan bezala beste hartan, berdinderdin izan liteke librea; hori horrela izan dadin baldintza edo premina hau bete behar da: herri horretako gehiengoaren borondatea errespetatu. Beste guztia kontua da: hitzak, sinboloak, mitoak...

Baina herri horretako gehiengoaren borondatea kanpoko indarrek oztopatu eta zapuztuko balute, orduan ere gehiengoari dagokio kanpoko indar horiei kontra egiteko estrategia, medioak eta moduak erabaki eta finkatzea. Eta ez dugu uste, gaur gaurkoz, Euskal Herriko gehiengoaren borondatea bankuak, liburudendak eta autobusak erretzea denik, testuingurutik ez ertetzeagatik beste ekintza makurrago batzuk ez aipatzearen.

ZUT (Zaldibia)



**AVICOLA
SAN BLAS, S.L.**

- Arraultz salmenta
- Bertako produktu ona
- 30 urteko esperientzia

Atxu etxea, 27 ☎ 80 12 58 (oilategikoa) - ☎ 80 12 27 (etxekoa) IDIAZABAL

TXANDAKA

Super Pop

13, 14, 15 urteko neska askok, ikaragarrik!, erosten du Super Pop, Bravo, Vale edota antzeko beste aldizkariren bat. Argazkietan "plastikozko" pertsonak ageri dira: gerri estu, ipurdi borobil, titi tente, zango mehe eta luze eta espresiorik gabeko aurpegidun neskak, eta gerri estu, bizkar zabal, barrabil mardul eta aurpegi mehatxatzaileak mutilak.

Testuari dagokionez, neskak ezjakin eta tuntun azaltzen dira: "Nola jakin dezaket mutilak maite nauen ala ez?", "Orgasmoa lortu gabe ere, bere aurean itxurak egin behar al ditut?", "Musu bat eman zidan eta arnasik gabe utzi ninduen...!" Eta mutilek, berriz, orojakile, jaiotzez "dena" balekile eta eskubide guztiak balituzte bezala hitz egiten dute: "Nik musukatu nuen lehenengoz ezpainetan!", "Ez dut inoren mende egon nahi", "Neska bati baino gehiagori erakutsi diot larrua jotzen..."

Aldizkari horietako neskek ez ote dute mutilei zer irakatsirik?, eskubiderik ere ez? Eredu horiek dituztela, zer nolako etsipena sentitu behar du gizen xamarra dagoen neskatoak edota 15 urte eta "oraindik" sexu harremanik izan ez duenak... Ez naiz batere harritzen anorexia gaitza eta konplexuak izatea, ezta burutik egitea ere.

Hasieran, gaztetxoak aldizkari horiek erosten, ikusten, irakurtzen eta "ikasten" ikusi nituenean, euskaraz ere parekoak argitaratu beharko genituela pentsatu nuen. "Nahiz eta niri ez gustatu, aukera izan dezatela!", pentsatu nuen. Baina ez, ezta pentsatu ere! "Literatura" hori denez, nire ustez, gure gaztedia izorratzen duen generoetako bat, euskaraz parekorik sortzen inor ez gaiteze-la saia.

Maitasunaren funtsa ematean bezala dago hartzean: eman besterik egiten ez duena nekatu egiten da eta beti hartzea ere ez da osasuntsua. Oreka behar da. Bizitzak merezi du eta saia gaitezen, berdintasunean, osasuntsu, sano, alai eta zoriontsu bizitzen.

Joxepa Madariaga



Handitzen zarenean, zer izan nahi duzu?



Iñigo Aierbe

12 urte, ikaslea ordiziarra

Berdin zait, baina futbolaria, Ronaldo baino hobea. Orain Ordizian jokatzen dut eta Errealean jokatu nahiko nuke.

Joseba Usabiaga

10 urte, ikaslea ordiziarra

Futbolaria edo txirrindularia. Errealean gustatuko litzaidake futboleko jokatzea, eta txirrindulari bezala, Banneton edo Mapein aritzea.



Edorta Aranburu

10 urte, ikaslea ordiziarra

Tenislaria, Agassi bezala. Futbolaria izatea ere gustatuko litzaidake.

MGUAR

Iluminazio denda ireki berria!

Euskal Pilota, 4 eta 5

☎ eta faxa: 88 86 88

☎ mugikorrek: 908-576580

eta 908-000831

ORDIZIA

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27 ☎ 882007 BEASAIN



IBAI-ONDO

ZURGINTZA
ALTZARIAK

P.V.C.ko LEIHOAK



Antzizar Auzoa, z/g

☎ 880543 BEASAIN



rainbow rainbow rainbow rainbow

Aterki eta poltsak, bidaietako artikuluak,
konponketak, gerrikoak, etxeko diseinuak...

San Inazio, 2 BEASAIN ☎ 16 09 65

Errementari, 5 TOLOSA ☎ 67 41 43

ZINEA

GOIENIZ:

Otsailak 20, 'El abrazo de la muerte' eta 'Sed de mal', Usurbe Antzokian, 21:00etan.

LEGORRETA:

Otsailak 17: 'El demonio vestido de azul', 20:30.

Otsailak 24, 'Sentido y sensibilidad', 20:30.

BEASAIN:

'Panico en el tunel'. Ostirala 14: 22:15; larunbata 15: 19:30 - 22:15; igandea 16: 16:45 - 19:30 - 22:15; astelehena 17: 19:30 - 22:15.

ORDIZIA:

'Fanatico'. Ostirala 14: 22:15; larunbata 15: 19:30 - 22:15.

'Matilda'. Igandea 16: 16:45.

'Mis dobles, mi mujer y yo'. Igandea 16: 19:30 - 22:15; astelehena 17: 19:30.

'Al cruzar el limite'. Ostirala 21: 22:15; igandea 23: 19:30 - 22:15; astelehena 24: 19:30.

'La celestina'. Larunbata 22: 19:30 - 22:15.



'El abrazo de la muerte'

Robert Siodmak (EEBB 1949)

Zinema beltzaren izenburu aipagarrienetako bat, eza-gunenen artean ez egonda ere. Bertan, emakume eder bezain maltzur batek gizon zintzo bat ustelkerian murgiltzen dueneko argudio ezaguna kontatzen digu. Lan tekniko-artistiko boro-bila, expresionista estilo garbian. Ahaztezina segurtasun kamioia erasotzen duten eszena, sirenotsaren eromena lagun, egungo filme gehienentsuenei itzal egiteko modukoa.

'Sed de mal'

Orson Welles (EEBB 1957)

Mexikar polizia trakets baina zintzoaren eta Quinlan komisario koipetsu eta ustelaren arteko liskarra izango da Orson Wellesen filmerik onenetakoa den honen harria, justiziari buruzko alegia abstraktu eta 'kafkatarra' garatzeko. Zinemaren maisulan bat, argazki eta musika bikainak (Russell Metty eta Henry Manciniren eskutik) eta aktore-aktorea taldearen antzezpen bikainak borobildua.

MUSIKA

ORDIZIA:

Otsailak 15, 'Las Brujas' taldearen kontzertua, Gaztetxean, 23:00etan. Sarrera: 100 pezeta.

Otsailak 22, 'Malsonado y metralla' taldearen kontzertua (punk), Gaztetxean, 23:00etan. Sarrera: 100 pezeta.

ORMAIZTEGI:

Otsailak 14, Zarauzko 'Brigada Slam' taldearen kontzertua. Rocka. 22:30etan, Itxune tabernan.

Otsailak 21, Zaldibarko '4 clavos' taldea, heavy eta kaña. 22:30etan, Itxune tabernan.

HITZALDIAK

BEASAIN:

Otsailak 20, Internet-i buruzko hitzaldia, Asier Otamendiren eskutik, Udaletxeko Batzar-Aretoa, 19:30etan. Udal Euskaltegiak antolatua.

EZKIO-ITSASO:

Otsailak 22, AHT-ren aurkako bideo emanaldia eta hitzaldia, arratsaldeko 3.00etan.

ANTZERKIA

ORDIZIA:

Otsailak 15, 'Transito' taldearen 'Intrigados' lana, Gaztetxean, 19:30etan. Sarrera: 100 pezeta.

Otsailak 22, 'Uña y carne' taldea, Gaztetxean, 19:30etan. Sarrera: 100 pezeta.

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Otsailaren 14tik 26ra, 'Komikiak 100' erakusketa, Udaletxeko Batzar-Aretoa.

Otsailaren 15tik aurrera, Modesto Ferreiraren erakusketa, Aterpe Tabernan.



ORDIZIA:

Otsailaren 27ra bitartean, Irene Laffitteren pintura erakusketa, Barrenan.



Kale Nagusia, 11

88 93 17

ORDIZIA



Diseinua
Kalitatea
Garantia
Berrikuntzak

Legazpi Kalea, 4

88 04 06

ORDIZIA

**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea

Dorre-etxea, 1

(Postetxe gainean)

124 posta-kutxa

20240 Ordizia

Tfnoa: 88 96 12

Faxa: 88 27 19

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Josune Agirre eta Argider
Mujika

Erredakzio Batzordea:

Dionisio Amundarain, Jon Ara-
no, Mikel Albisu, Joseba Telle-
ria, Ane Martin, Loinaz Agirre
eta Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:**

Aitor Calvillo, Joseba Telleria,
Xabier Urteaga, Rufino Iraola,
Izaskun Salazar, Koldo Urresta-
razu, Urko Irastorza, Aitziber
Murua, Josune Aldabe, Edurne
Albizu, Joxepa Madariaga, Juan
Karlos Aldasoro eta Josune Es-
kisabel.

**Fotokonposizio eta maketa-
zioa: GOIERRITARRA.**

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9. Oñati)

Tirada: 6.000 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

**GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, al-
dizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.**

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



Iazko txiste lehiaketako irabazleak.

**VI. Txiste idatzien lehiaketa,
Korrika 10aren eskutik**

Goierriko Korrika 10eko
Batzordeek VI. Euskaraz-
ko Txiste Idatzien Lehia-
keta antolatu dute. Hel-
duak euskaraz idaztera
bultzatzeko asmotan sor-
tu zen ekimen honek, ur-
tez urte, partehartze eta
arrakasta handia izan du.

Baldintzak betikoak
dira, 16 urtetik gora iza-
tea eta txisteak euskara
batuan edo euskalkian
idatzirik bidaltzea. Txis-
teak, berriz, nahi adina,
martxoaren 19rako bidali
behar dira ondorengo hel-
bidera: "Ordiziako Goiz-
tiri AEK Euskaltegia, 116
posta kutxa, Ordizia",
ahaztu gabe norberaren
izena, abizenak, herria eta
telefonoa jarrita. Hiru
txiste onenen aukeraketa
Goiztiri AEK Euskalte-

gietako ikasleek egingo
dute, eta ondorengo sa-
riak izango dituzte: Zega-
mako Ostatuan afaria bi
lagunentzat; Ordiziako
Haizpe jatetxean afaria bi
lagunentzat; eta Gaintza-
ko Kale-txiki jatetxean
afaria bi lagunentzat.

Partehartzaile guztien
artean, beste hainbat sari
kultural ere zozketatuko
dira.

Bestalde, AEK-koek
txiste lehiaketa antolatze-
arekin batera, aurreko ur-
teko lehiaketara aurkeztu-
tako txisteak argitaratu
dira liburuska batean,
AEKren Euskaltegien
eskura daitezke.

Badakizu, martxoaren
19a baino lehen bidali zu-
re txistea!

BOTA BERTSOA



Antton Garmendia

San Balentin eguna

Doinua: Pello Joxepe

Beti bezela iritsi zaigu
maitasunaren eguna.
Telefonotik bere galdera
zer moduz zaude kuttuna?
Ederki nago nere maitia,
bestaldetik erantzuna,
oparitxo bat erosi dizut
konpromezu eraztuna.

Berak badaki zer oparitu
orain nerea da pena
zuretzako da nerekin dedan
gauzarikan hoberena
nere bizitza ta etorkizuna
zuretzako baita dena
elkar maitatuz bizitzea da
oparirik politena.

*Eusko Jaularitza-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta*

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Euskal irakaskuntza askatu

Azken bolada honetan gauza asko ari gara entzuten "hez-kuntzako adituen" ahotik, erreforma dela medio. Irakaskuntzaren hobetzeaz dihardute, sakonean (izaera eta helburuetan) betikoa izango dela jakinik: inposaturiko sistema honen euskarri edo zutabe garrantzitsu bat, demokraziaz mozturiko eredu autoritario bat.

Hezkuntz eredu hau ulertzerakoan (geure burua Euskal Herrian kokatuz) 2 azterketa eduki behar ditugu go-
goan:

1.- Alde batetik, Euskal Herriaren identitate nazionalaren zapalkuntzan irakaskuntzak jokatzeko duen pape-
ra. Gure Herriaren ezagutza eta desarroilorako tresna izan beharrean, gu zapaltzen gaituzten estatuen eredu hartzen du; bai maila kultural-
ean, lurraldetasunari dagokio-
nean eta baita nazional-
ean ere. Gure izaera, lurraldeak, historia, kultura... alde batera utzi eta Espainia eta Europa-
ko "ezaugarriak" "erakus-
ten" dizkigute, geureak bali-
ria bezala.

2.- Beste aldetik, inposatu-
riko sistema kapitalistaren
iraupenerako pertsonen
"prestakuntza" (zapalkun-
tzan hobe esanda) duen ardu-
ra. Garbi dagoena da, ekono-
mian eta produktibitatean
(eta ez gizatasunean, elkarta-
sunean, berdintasunean...) oinarritutako sistema kapita-
lista honek, bere men-
era

dauden pertsonak behar di-
tuela gutxi batzuentzat abe-
rastasuna sortzeko. Pertsona-
robot hauek "hezitzeaz" ar-
duratzen da irakaskuntza.

Hau horrela izanik ere,
Euskal Herrian ikasle mugimendu indartsu bat sortu eta
hedatu izan da ikastetxe-
ikastetxe, egoera honi buelta
eman eta Euskal Herriak be-
har duen irakaskuntza lortu
nahian.

Horrela, hezkuntz eredu
honen diseinatzaileek, be-
raien helburuak aurrera ate-
ratzeko oztopoak ikusi dituzte
eta mugimendua desakti-
batzen saiatu dira. Garbi era-
kutsi dute helburu hau lortze-
ko edozein bide zaiela zilegi
eta honenbestez ikasleen aur-
kakako erasoari ekin diote au-
toritarismo gordina erabiliz.

Honen adibide garbiak ere
ikus ditzakegu gure eskual-
deko ikastetxeetan, Alkarta-
suna Lizeoan ikasleek bizi
dutena esaterako. Ikastetxe
honetako ikasleek debekatua
daukate asanblada eskubi-
dea, ikastetxean kartelak
jartzea, ikasleak antolatzea,
edozein inkesta egitea, greba
egitea (erakunde legal batek
konbokatua ez bada behin-
tzat) eta amaierarik gabeko
ukazioz beteriko zerrenda
amaigabea. Ikasle hauek be-
raien oinarritzko eskubideak
ukatuak daukate.

Ikus daitekeenez egoera
larria da, oso larria. Horrega-
tik inoiz baino behar handia-
goa daukagu ikasleok antola-
tu eta borrokatzeko, horrela
bakarrik lortuko baitugu

Euskal Herriak behar duen
irakaskuntza.

Goierriko irakaskuntzako Jarrai

Zaldibiako Kutxa

(16. orriko jarraipena.)

1.- Berriri sua Kutxan.
Lehenengo aldiz erre zutene-
an, HBk atera zuen komuni-
katuaren balorazioa egitera-
koan, Udaletxean sartu ge-
nuen mozioko 3. puntuaren
amaieran honela genioen:
"hori egin dutenei, berriro
egin dezaten, laineza ematen
ari da". Zoritxarrez, bete-
tean asmatu dugu.

2.- Basakeria berri honen
aurrean, berriro ere, lehen-
go gauza berberak errepikatu
beharko: ekintza hori indar
oroz kondenatu, Txindoki
etxeko bizilagunekin solida-
rizatu; eta, bestalde, orduan
aipatu bakarrik egiten geni-
tuen HBren komunikatuko
zenbait punturi buruz gogoe-
ta egin.

3.- Komunikatu horretako
puntu batzuk "¿de dónde vie-
nes?, manzanas traigo" gisa-
koak dira: nahaste-borrastea,
adibide guztiz anakronikoak
eta arguziak. Harrokeria eta
demagogi puntturik ere ez
zaio falta: eurekin bat ez da-
tozen guztiak edota fede txar-
reko saldukeriazaleak dira,
edota inuxente baboak; be-
raiek dira kontzientzia zuzen-
aren paradigma eta ispilu.

4.- Bitoriano Gandiagak
bere arimako lore gorriari es-
kaintako hitz lirikoak Ku-
txaren kontrako sua justifi-

katzeko erabiltzeak izenik ez
du. Hain zuzen ere, Gernika
kixkarratuan erre ez zitzaion
lore gorria. Bai, lore gorria
da Gandiagarena, eta ez su
gorria. Eta seguru gaude Li-
zardik ere "sua eta ura belau-
nez behetik" nahi zituela.
Bihotzeko sua, amodiozko
sua, amonaren bakezko sua
aipatzen ditu Zarauzko poe-
tak, ez suntsipenerako sua.

5.- ZUTek garbi eta ozen
aldarrikatzen ditu giza esku-
bideak. Baina ez, batzuek be-
zala, batzuentzat bakarrik,
pertsona guzti-guztientzat
baizik.

6. Debate hau azken pun-
tu honetan zentratu nahi ge-
nuke, orde: herri bat, estatus
edo marko politiko honetan
bezala beste hartan, berdin-
berdin izan liteke librea; hori
horrela izan dadin baldintza
edo premina hau bete behar
da: herri horretako gehiengo-
aren borondatea errespetatu.
Beste guztia kontua da: hi-
tzak, sinboloak, mitoak...

Baina herri horretako
gehiengoaren borondatea
kanpoko indarrek oztopatu
eta zapuztuko balute, orduan
ere gehiengoari dagokio kan-
poko indar horiei kontra egi-
teko estrategia, medioak eta
moduak erabaki eta finka-
tzea. Eta ez dugu uste, gaur
gaurkoz, Euskal Herriko
gehiengoaren borondatea
bankuak, liburudendak eta
autobusak erretzea denik,
testuingurutik ez ertetzeaga-
tik beste ekintza makurrago
batzuk ez aipatzearen.

ZUT (Zaldibia)



**AVICOLA
SAN BLAS, S.L.**

- Arraultz salmenta
- Bertako produktu ona
- 30 urteko esperientzia

Atxu etxea, 27 ☎ 80 12 58 (oilategikoa) - ☎ 80 12 27 (etxekoa) IDIAZABAL

TXANDAKA

Super Pop

13, 14, 15 urteko neska askok, ikaragarrik!, erosten du Super Pop, Bravo, Vale edota antzeko beste aldizkariren bat. Argazkietan "plastikozko" pertsonak ageri dira: gerri estu, ipurdi borobil, titi tente, zango mehe eta luze eta espresiorik gabeko aurpegidun neskak, eta gerri estu, bizkar zabal, barrabil mardul eta aurpegi mehatxatzaile dun mutilak.

Testuari dagokionez, neskak ezjakin eta tuntun azaltzen dira: "Nola jakin dezaket mutilak maite nauen ala ez?", "Orgasmoa lortu gabe ere, bere aurrean itxurak egin behar al ditut?", "Musu bat eman zidan eta arnasik gabe utzi ninduen...!" Eta mutilek, berriz, orojakile, jaiotzez "dena" balekile eta eskubide guztiak balituzte bezala hitz egiten dute: "Nik musukatu nuen lehenengoz ezpainetan!", "Ez dut inoren mende egon nahi", "Neska bati baino gehiagori erakutsi diot larrua jotzen..."

Aldizkari horietako neskek ez ote dute mutilei zer irakatsirik?, eskubiderik ere ez? Eredu horiek dituztela, zer nolako etsipena sentitu behar du gizen xamarra dagoen neskatoak edota 15 urte eta "oraindik" sexu harremanik izan ez duenak... Ez naiz batere harritzen anorexia gaitza eta konplexuak izatea, ezta burutik egitea ere.

Hasieran, gaztetxoak aldizkari horiek erosten, ikusten, irakurtzen eta "ikasten" ikusi nituenean, euskaraz ere parekoak argitaratu beharko genituela pentsatu nuen. "Nahiz eta niri ez gustatu, aukera izan dezatela!", pentsatu nuen. Baina ez, ezta pentsatu ere!. "Literatura" hori denez, nire ustez, gure gaztedia izorratzen duen generoetako bat, euskaraz parekorik sortzen inor ez gaitzezela saia.

Maitasunaren funtsa ematean bezala dago hartzean: eman besterik egiten ez duena nekatu egiten da eta beti hartzea ere ez da osasuntsua. Oreka behar da. Bizitzak merezi du eta saia gaitzen, berdintasunean, osasuntsu, sano, alai eta zoriontsu bizitzen.

Joxepa Madariaga



Handitzen zarenean, zer izan nahi duzu?



Iñigo Aierbe
12 urte, ikaslea
ordiziarra

Berdin zait, baina futbolaria, Ronaldo baino hobea. Orain Ordizian jokatzen dut eta Errealean jokatu nahi-ko nuke.

Joseba Usabiaga
10 urte, ikaslea
ordiziarra

Futbolaria edo txirrindularia. Errealean gustatuko litzaidake futboleko jokatzea, eta txirrindulari bezala, Banneton edo Mapein aritzea.



Edorta Aranburu
10 urte, ikaslea
ordiziarra

Tenislaria, Agassi bezala. Futbolaria izatea ere gustatuko litzaidake.

**MG
UAR**

**Iluminazio denda
ireki berria!**

Euskal Pilota, 4 eta 5
☎ eta faxa: 88 86 88
☎ mugikorrak: 908-576580
eta 908-000831
ORDIZIA

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak


Nagusia, 27 ☎ 882007 BEASAIN



IBAI-ONDO

ZURGINTZA
ALTZARIAK

P.V.C.ko LEIHOAK



Antzizar Auzoa, z/g
☎ 880543 BEASAIN



rainbow rainbow rainbow rainbow

Aterki eta poltsak, bidaietako artikuluak,
konponketak, gerrikoak, etxeko diseinuak...

San Inazio, 2 BEASAIN ☎ 16 09 65
Errementari, 5 TOLOSA ☎ 67 41 43

ZINEA

GOIENIZ:

Otsailak 20, 'El abrazo de la muerte' eta 'Sed de mal', Usurbe Antzokian, 21:00etan.

LEGORRETA:

Otsailak 17: 'El demonio vestido de azul', 20:30.

Otsailak 24, 'Sentido y sensibilidad', 20:30.

BEASAIN:

'Panico en el tunel'. Ostirala 14: 22:15; larunbata 15: 19:30 - 22:15; igandea 16: 16:45 - 19:30 - 22:15; astelehena 17: 19:30 - 22:15.

ORDIZIA:

'Fanatico'. Ostirala 14: 22:15; larunbata 15: 19:30 - 22:15.

'Matilda'. Igandea 16: 16:45.

'Mis dobles, mi mujer y yo'. Igandea 16: 19:30 - 22:15; astelehena 17: 19:30.

'Al cruzar el limite'. Ostirala 21: 22:15; igandea 23: 19:30 - 22:15; astelehena 24: 19:30.

'La celestina'. Larunbata 22: 19:30 - 22:15.



'El abrazo de la muerte'

Robert Siodmak (EEBB 1949)

Zinema beltzaren izenburu aipagarrienetako bat, eza-gunenen artean ez egonda ere. Bertan, emakume eder bezain maltzur batek gizon zintzo bat ustelkerian murgiltzen dueneko argudio ezaguna kontatzen digu. Lan tekniko-artistiko boro-bila, expresionista estilo garbian. Ahaztezina segurtasun kamioia erasotzen duten eszena, sirenotsaren eromena lagun, egungo filme gehienentsuenei itzal egiteko modukoa.

'Sed de mal'

Orson Welles (EEBB 1957)

Mexikar polizia trakets baina zintzoaren eta Quinlan komisario koipetsu eta ustelaren arteko liskarra izango da Orson Wellesen filmerik onenetakoa den honen harria, justiziari buruzko alegia abstraktu eta 'kafkatarra' garatzeko. Zinemaren maisulan bat, argazki eta musika bikainak (Russell Metty eta Henry Manciniren eskutik) eta aktore-aktorea taldearen antzezpen bikainak borobildua.

MUSIKA

ORDIZIA:

Otsailak 15, 'Las Brujas' taldearen kontzertua, Gaztetxean, 23:00etan. Sarrera: 100 pezeta.

Otsailak 22, 'Malsonado y metralla' taldearen kontzertua (punk), Gaztetxean, 23:00etan. Sarrera: 100 pezeta.

ORMAIZTEGI:

Otsailak 14, Zarauzko 'Brigada Slam' taldearen kontzertua. Rocka. 22:30etan, Itxune tabernan.

Otsailak 21, Zaldibarko '4 clavos' taldea, heavy eta kaña. 22:30etan, Itxune tabernan.

HITZALDIAK

BEASAIN:

Otsailak 20, Internet-i buruzko hitzaldia, Asier Otamendiren eskutik, Udaletxeko Batzar-Aretoa, 19:30etan. Udal Euskaltegiak antolatua.

EZKIO-ITSASO:

Otsailak 22, AHT-ren aurkako bideo emanaldia eta hitzaldia, arratsaldeko 3.00etan.

ANTZERKIA

ORDIZIA:

Otsailak 15, 'Transito' taldearen 'Intrigados' lana, Gaztetxean, 19:30etan. Sarrera: 100 pezeta.

Otsailak 22, 'Uña y carne' taldea, Gaztetxean, 19:30etan. Sarrera: 100 pezeta.

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Otsailaren 14tik 26ra, 'Komikiak 100' erakusketa, Udaletxeko Batzar-Aretoa.

Otsailaren 15tik aurrera, Modesto Ferreiraren erakusketa, Aterpe Tabernan.



ORDIZIA:

Otsailaren 27ra bitartean, Irene Laffitteren pintura erakusketa, Barrenan.



Kale Nagusia, 11

88 93 17

ORDIZIA



Diseinua
Kalitatea
Garantia
Berrikuntzak

Legazpi Kalea, 4

88 04 06 ORDIZIA

MENDI IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Otsailak 16, Beasain-Lazkaoetxe-Beasain.

Otsailak 23, Beasain-Urbizu-Beasain.

Ordiziako mendizaleak:

Otsailak 16, Otzaurte-San Adrian-Aratz.

Otsailak 23, Arantza-zu-Artzanburu-Udana.

24 ordu Beasainen

24 orduko futbito txapelketa jokatu da otsailaren 22an, Antzizar Kiroldegian. Loinatz tabernan eman beharko da izena, otsailaren 21a aurretik. Inskripzioa 8.000 pezeta kostako da. Sariak hauek: talde irabazlearentzat 50.000 pezeta; bigarrenarentzat 25.000; eta hirugarrenarentzat 15.000. Pitxitxi saria ere egongo da.



Martxoaren 2ra arte, Loinazko San Martin' erakusketak, Usurbe Antzokiko Erakusketa-aretoan.



GOARDIAKO FARMAZIAK

Astegunetan: Arriola
(Plaza Nagusia - Ordizia).

15-16: Cuesta (Nafarroa Etorbidea, 39-Beasain).

22-23: Atorrasagasti
(Gipuzkoa, 15 - Ordizia).

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Lana:

☐ Frantseseko klaseak hartuko nituzke. 88 24 67. 8.00etatik aurrera deitu.

☐ Lan egin ezazu zure etxetik, diru extra bat lortzeko. Egun osoa edo orduka. Deitu 16 00 36 telefonora.

Salerosketak:

☐ Ganbara salgai, Ordiziako Santa Maria kalean. Bi logela, egongela, sukalde, bainugela eta trasteroa. Teilatua aldatu berria. 885717.

☐ Etxebizitza salgai Ordizian, erdigunetik gertu. 86 m²: 3 logela, egongela, sukalde, bainua eta trastalekua. 88 18 49.

☐ Pisu berria salgai Beasainen. Nabarro Larreategi kalean. 88 20 37.

☐ Gitarra bat (9.000 pzta.), bizikleta bat (10.000 pzta.) eta oihalezko txaketo gris, behin bakarrik erabili (7.000 pzta.) salgai ditugu. 88 22 24 (gauetz).

☐ Marshall Valvestate, 8 batiadun kitarra anplia salgai. Berria eta salneurri interesgarria. 88 47 68. Jon. Otordu garaietan deitu.

☐ Su-egurra saltzen da, iharra eta txikitua. 80 04 38

Bestelakoak:

☐ Beasainen 1961-1963 bitartean atera zen 'Loinaz' aldizkariaren ale hauek erosiko nituzke: 2, 4, 5, 12, 13, 14 eta 15. Asteburuko bazkalondoetan 88 30 68 telefonora hots egin.

☐ Esku soinuak konpontzen dira, marka eta modelo guztiak. 47 00 01-ra deitu, arratsaldeko 5etatik, 7etara, ostegunetan ezik.

IMAZ OPTIKA

IKASLEENTZAKO PROMOZIOA:

7.500 pzta. Montura + Lenteak

ESKIATZEKO MODELO GUZTIAK !!

KIROL GUZTIETARAKO BETAURREKOAK DITUGU

Urdaneta, 14

88 12 42

ORDIZIA



- Mediku akupuntorea
- Pisuaeren kontrola
- Estetiziena

Santa Maria, 8 88 12 11

ORDIZIA

IKASTEK AKADEMIA

Kalitatea eta profesionaltasuna

- ✓ Eskola laguntza
- ✓ Unibertsitarioak
- ✓ Oposaketak
- ✓ Kurtsoak

Maila eta arlo guztiak Zentru homologatua

16 01 20 Joan Iturrilalde, 5 BEASAIN

KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1

88 51 68

ORMAIZTEGI



Juan Karlos Aldasoro
GOIEKI-ko teknikaria

“Goierriko eskualdeak azkenengo hamar urteotan 2.000 pertsona inguru galdu ditu. Horren arrazoirik garrantzitsuena emigrazioa izan da dudarik gabe”

Goierriko eskualdeak, 1986 eta 1996 hamarkadan bere biztanleriaren % 5,58 galdu du, 2.000 pertsona inguru; 1986an 41.733 biztanle zeuden Goierri, 1996an berriz, 39.404 pertsonak osatzen zuten berezko biztanleria. Beherakada nabarmena 1986 eta 1992 urteen bitartean nabaritu zen, izan ere hamarkada osoan 2.329 biztanle galdu bazituen, gainera horren % 65,77 sei urteotan gertatu zen.

1.532 kanpora

Biztanleria murriztu izanaren arrazoirik garrantzitsuena emigrazioa izan da dudarik gabe, 1.532 pertsonak alde egin dute Goierritik (imajinatu Ataun, Legorreta edo Zaldibiako biztanleria guztia kanpora bizitzera joatea). Emigrazio honen zergatiak bi izan dira: alde batetik imigranteak jubilatu ondoren, beraien jaioterrietara itzuli dira, eta bestatik, biztanleria mugikorra da lana herrian edo hurbileko herrietan aurkitzeko ar-

Goierriko biztanleriaren bilakaera

zoak dituzte eta horrek ere bultzatu du hauek kanporantz joatea.

Arama, Gaintza, Itsasondo

1992. urtetik aurrera eskualdeko berezko populazioaren joera beherakoa izan bada ere, aipatu beharrekoak dira Arama, Gaintza eta Itsasondoko kasuak, herriok salbuespen izan baitira jeitsiera honetan. Aramak 1992-96 bitartean 15 biztanle gehiago izan ditu, Gaintzak 8 eta Itsasondok berriz 10. Zenbakiok aparte-ko igoera ez badirudite ere badute bere garrantzia, izan ere hiru herrietako biztanleria batera hartuta ez da mila lagunetara hel-zen. Hala ere, Gaintzak bakarrik lortu du 1986ko kopurua gainditzea, beste

bietan populazioak gora egin duen arren ez dira 1986ko mailara iritsi.

Bestalde, 1986-96 hamarkadan biztanle gehien galdu duten herrien artean Ataun, Mutiloa eta Olaberria dira kasurik adierazgarrienak, hiru herriek % 13 eta % 20 bitarteko populazio galera jasan dute aipatutako denboraldian. Beherakada hauen arrazoiak batik bat emigrazioa izaki, berezko hazkunde negatiboa ere kontuan izatekoa da, hau da, heriotza kopurua jaiotzena baino handiagoa dela.

Fenomeno orokorra

Azkenik, aipatu behar da ez dela Goierri biztanleria galdu duen eskualde bakarra, Gipuzkoako eskualde gehienak, Donostialdea salbu, egoera beretsuan baitaude, arrazoi berak direla medio kasu orotan. Beraz, fenomeno hau eta honen zergatiak aztertzeko eremu zabalago batetik hasi beharko genuke, baina hori beste ikerketa batera-ko lana izango litzateke.



ARANDIA
Garaiea

LADA
Ssang Yong
N-1, z/g
☎ 88 09 47

AUTOEN KONPONKETA
Iurre Auzoa
OLABERRIA


Ignacio Garmendia Goya

- ✓ Txatarra, altzairu txirbil eta metalen erosketa
- ✓ Neurri ezberdinetako edukiontzien zerbitzua
- ✓ Merkatuko salneurriak egokienak

Alderdieder, 1

☎ 80 64 29 - Faxe: 80 61 14

LEGORRETA



ondoeta

ALTZAIRUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Nagusia, z/g. Tfnoa.: 883102. Faxe: 88 0872 ITSASONDO

ERREZETA



Ane Otegi
Pipas jatetxea
Lazkaoendi

BAKAILAOZ BETETAKO PIPERRAK

Osagaiak: bakailaoa, pikilo piperrak, esnea, irina, esnagaina, tomatea, perrexila, tipula eta olio.

Olio, tipula eta bakailao txikitua (gezatua) zartagi batean jarri. Ontzi batean irinarekin eta esnearekin bexamela egin. Perrexil piska bat bota. Dena nahastu eta piperrak bete. Piperrak pikilloak izan daitezela.

Saltsa: esnegaina eta egindako tomatearekin egiten da. Biak nahastu, saltsa horretan piper beteak jarri eta ordu laurdenez utzi egiten. Zerbitzatzerakoan perrexil piska bat bota.



Josune Eskisabel
Estetizista

Elurra, hotza eta eguzkia neguko hirukoterik bel-durgarrienak dira. Aurpegia hidratatu eta babestu. Ura jasaten duten gel motako produktu suabeak aukeratu. Ez erabili oso garbitzaileak diren produktuak. Neguan azalak leuntasuna eta mimatzen duten produktuak behar ditu.

Azala eguzkitarako prestatu

Ez da goi-mendietako eguzkiarekin engainatu behar. Izkutuan badago ere, azalarentzat kaltegarria da, eguzki izpiek elurretan sortzen duten distira kontutan hartu behar da. Zenbat eta altuago, izpiak orduan eta arriskutsuagoak. Eskia praktikatzek

AHOLKUA

Neguko kirolerako prestakuntza tratamenduak

ere gorputzadarrei eragiten die, beharrezkoa da eskuak eta hankak manikura eta pedikura on batekin zaintzea, azkazal motz eta zuzenak. Krema elikagarri edo nutritibo on batekin masaiak eman.

10 aholku

Hona hemen aire zabaleko neguko kirolak arriskurik gabe praktikatzeko 10 aholku:

- 1.- Produktuak eman aurretik, eskuakin berotu. Azalaren tenperaturan egonez gero, hobeto sartzen dira.
- 2.- Hotzaren, haizearen eta lehortasunaren aurkako produktu espezifikoak besteak beste erabili.
- 3.- Altueran eguzki izpiak biziagoak direnez, azal bakoitzari dagokion eta ondo babestuko duen protezio handiagoko kremak erabili, egokiena "protezio total" erakoa da.
- 4.- Ura jasango duen produktua erabili, UVA eta UVB filtroak dituen, eta sarritan eman.
- 5.- Babesik handiena lortzeko, krema eguzkitara atera baino 20 edo 30 minutu lehenago eman.
- 6.- Sudur, kopeta eta belarrientzako zenbaki handiagoduna erabili, arrisku handieneko atalak baitira.
- 7.- Hobe dutxa bizigarriak hartzea, bainu beroak baino.
- 8.- Eskuetan krema babeslea erabili, eskularruekin ere sufritu egiten baitute.
- 9.- Ezpainak baltsamu edo produktu espezifiko oso hidratagarriekin babestu, ez zartatzeko.
- 10.- Eguzkiaren ondorenarako krema berritzailea eman, azalaren lehortzea ebitatu eta beltzaran-kolorea luzatzeko.

DBH

ORDIZIA



PUBLIKOA

ESO

IKASTETXE

- Kalitatezko heziketa B eta D ereduetan
- 12 - 19 urte zentru berean
- Esperientzia
- Metodologi berritzailea eta aktiboa
- Erreformatarako prestatua
- Jangela eta garraioa (dohainik)

IZEN EMATEA
OTSAILAREN 17tik AURRERA



MUJKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
88 11 94
ORDIZIA

Juan Mari Olano


Otsailaren 17an, Auzitegi Nazionalean aurkezteko agindu du Juan Mari Olano gaintzarrak. Amnistiaren Aldeko Batzordeen bozeramale eta HBko Mahai Nazionalakidea da. Eta hauteskunde kanpainan, ETaren Alternatiba Demokratikoa aurkeztu zutelako auzipertutuko dute. Epailearen aurrera bere borondatez agertze-ko asmorik ez duenez, beste Mahai Nazionalakideak bezala, atxilotu, epailearen aurrera eraman eta kartzelan sartuko dute ziurrenik.

Fermin Galvan

Otsailaren 5ean Beasaingo Fermin Galvan ertzaina hil egin zen, bere pistolarekin bere buruari tiro egin ondoren. 31 urte zituen eta Zumarragako komisaldegian egiten zuen lan.

Sabotaiak

Bi sabotaiak erreibindikatu dituzte. Bata Telefonicakaren lokalaren aurka egindakoa, "azken egunotan jasaten ari garen atxiloteta masibo hauen kontra". Bestea, urtarrilaren 17an Ordizian erre zuten Kutxarena, "gaz-



teok jasaten ari garen errepresioaren aurkakoa". Kutxatik gertu zeuden eta kalte-tuta suertatu ziren hiru kotxeetako jabeek barkamena eskatu nahi die.

Egun bateko ibilbideak dira eta 3.250 pezeta kostako da. Bertan, garraioa, bazkaria eta gida sartzen dira. Talde, ikasle eta jubilatuentzat prezioa bereziak daude. Turismo eskaintza honekin, eskualdean dauden baliabideak aprobetxatu eta erakutsi nahi dira. Informazio gehiagorako 16 18 23 telefonora deitu.

teok jasaten ari garen errepresioaren aurkakoa". Kutxatik gertu zeuden eta kalte-tuta suertatu ziren hiru kotxeetako jabeek barkamena eskatu nahi die.

Biolentziaren aurka

Beasaingo Institutuko Gure Eskuetan pake taldeak antolatuturik, urtarrilaren 30ean, biolentziaren aurkako egu-

Turismoa Goierriin

Goieki, Goierriren garapen agentziak, Goierri ezagutzeko pakete turistikoak aurkeztu du. 4 ibilbide proposatzen ditu: 1- Aitzgorri-Santiago bidea, Seguran eta Zegaman geldialdia eginez. 2- Aralar eta Josemiel Barandiaran, Lazkaon geldituz. 3- Segurako eta Ordiziako kasko historikoak eta Beasaingo Igartzako gune historikoa. 4- Gaztaren ibilbidea, Idiazabal, Ordizia, Gabiria eta Zerain.

na ospatu zuten. 300 globo txuriz osatutako bakearen bandera egin eta ondoren denak zulatu zituzten.

Etxegarate

Goierriko, Tolosaldeko, Nafarroako Sakanako eta Arabako Lautadako hainbat alkatek Etxegarate berehala bikoizteko exigitu die Gipuzkoako Diputazioari. Di-

rua ez da arazoa alkate hauen ustez, "lanak hasteko borondate politikoa falta da".

Mikel Otegi

Itsasondoarraren aurkako epaiketarako Zinpeko Epaimahaia osatzeko zailtasunak daude. Zozketa bidez aukeratutako 36 lagunek, familiaren lagunak izatea, lan arazoak izateak, gaixotasunak... arrazoi bezala jarri dituzte Epaimahai horretan parte ez hartzeko.



Korrika

Korrika 10 antolatze-ko batzordeek biltzen jarraitzen dute. Ordizian, ostegunero, arratsaldeko 7.00etan, Barrenan; eta Beasainen, asteazkenero, asteazkenero Udal Liburutegian, iluntzeko 8.00etan.



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 88 87 02
BEASAIN

**"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"**



K. Nagusia 35	Elosegi, 14 ^a	Sta. Maria, 19
☎ 88 77 58	☎ 88 72 79	☎ 16 00 44
BEASAIN	LAZKAO	ORDIZIA

VOLVO
TOYOTA



ŠKODA
Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 88 17 00 - 88 17 04
BEASAIN

AHT

Abiadura Handiko Trenaren aurkako asanbladak jakitera eman digunez, asteazkenero biltzen dira Ordiziako Gaztetxean, arratsaldeko 6.30etan. Otsailaren 22an, larunbatean, Ezkio-Itsason AHTren aurkako bideo emanaldia eta hitzaldia izango da, arratsaldeko 3.00etan.

Era berean, Donostian egin zen manifestaziora joateko atxikimendua Goierriko talde hauek azaldu zuten: Ormaiztegiko Gazteria eta HB; Itsasondoko Gazte Asanblada eta Udala; Beasaingo Gazte Asanblada; Ordiziako Askapena, HB, Gazte Asanblada eta Jarrai; eta Lazkaoko Gazte Asanblada.

Plazida Insausti

Garin auzoan bizi den Plazida Insaustik 100 urte bete ditu. Udalak eta Diputazioak omenaldia eskaini die. Garingo jaietan, auzotarrek ere omenalditxo egin nahi izan zien.

Urtebeteko soldata

150.000 pezetako soldata jasoko du hilero Belen Bolinaga Karriki beasaindarrek, urtebetean, Gipuzkoako AEK-k antolatzen duen zozketan saritua izan ondoren. Aurten 3. edizioa izan du, eta hiru sarietatik 2 Goierriara etorri dira.

Josune Bereziartu Rikardo Otegi

Otsailaren lehenengo aste-buruan Parisen jokatu zen Munduko Eskalada txapelketan Josune Bereziartu beasaindarrek 15. postua egin zuen. Rikardo Otegi ordiziarrek, 19. postua.

Zugaitz Ayuso

Itsasondorrek 21. egin zuen Munichen jokaturako ziklo-kros txapelketan. Irabazlearengandik 3 minutu eta 22 segundura.

Aitor Ugalde

Euskal Herriko Pelota Federazioak 'urrezko luma' eman dio Aitor Ugalde segurar kazetariari. Euskaldunon Egunkariako kirol orriak betetzen ditu Aitorrek, eta pelotari dagozkion gaiak berak jorratzen ditu.

Iker Sukia

Otsailaren 8an, Euskadiko txapelketa irabazi zuen, pisu jaurtiketan, Iker Sukia atundarrak. 17 metro eta 92 zentimetrora bota zuen bola.

Era berean, joan zen astean jakin genuenez, Iker Sukia atletari 1.200.000 pezetako beka eman dio Ado 2000 programak. Datozen joku olinpikoetarako, 2000. urtekoetarako, prestaketarako izango da beka hori.



Irene Laffite pintorearen erakusketa Ordizian

Irene Laffite pintoreak bere ibilbidean zehar egindako 30 olio lan ikusgai daude Ordiziako Barrena Kultur Etxean. 1951tik 1996ra bitartean egindako lanak dira guztiak. Donostiara da Laffite, baina Ordiziako Areta baserria bere lantoki izan zen 1978tik 1982ra bitartean, Areta baserria erre zenerarte. Goierriarekin eta Txindokirekin maitemindu zen aldi hartan. Beasaingo lantegiak, mendiak, baserriak, animaliak... Era honetan, Ordiziako erakusketa honetan, 'Miercoles de Ordizia' eta 'Fabricas de Beasain' izenburuko lanak daude ikusgai.

Donostian jaioa, Donostiako Arte eta Ofizioetako Eskolan eta Madrilgo San Fernando Arte Ederretako Akademian egin zituen ikasketak, 1959an Gipuzkoako Artista Berrien Lehiaketan saritua izan zen, eta handik gutxira Madrilan erakusketa zabaldu eta Parisera joan zen. Parisen kaleetan inspiraturik egin zituen koadroak. Pasaiera etorri, eta itsasoa hartu zuen inspirazio iturritzat. 70eko hamarkadan Gipuzkoako emakumezko pintoreei zuzenduriko lehiaketan saritua izan zen behin baino gehiagotan.

Goierriko paisaia

Ondoren etorri zen Goierriara. Paisaiez gain, oilarra protagonista duen seriea ere sortu zuen. Oilarrak berezkoa duten bizitasuna eta dotoretasun-planta islatzen saiatzen zen. Espotula olio pinturaz beterik erabiltzen du.

Otsailaren 27rarte egongo da zabalik erakusketa. Ordu-tegiak: lanegunetan: 6etatik 9etara; larunbatetan 11etatik 1etara eta 6etatik 8etara; igandeetan 6etatik 8etara.



**GOIAGI
OKINDEGI**

Ogigintzan onenak!

**Etxezarreta z/g
ORDIZIA ☎ 160501**

- ◆ Egurrezko labeen egindako ogi gozoa
- ◆ Opil finak
- ◆ Eguneroko ogia
- ◆ Ogi bereziak
- ◆ Ogi artisauak

**Barandiaran Taldea,2
ZALDIBIA ☎ 880737**



ARRIZARR BODEGOIA

Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara

Zaldizurreta, 7 ☎ 88 98 44 BEASAIN

40.037 BIZTANLE BIZI GARA GOIERRIN, 91n BAINO 989 GUTXIAGO

Gero eta goierritar gutxiago

Azkeneko eroldaren arabera, 40.037 goierritar gara, 91n baino 989 gutxiago. Biztanleetan Alzaga, Arama, Gaintza eta Zerain igo dira. Gainerako guztiak jaitsi. Jaiotze tasa txikiak badu honetan eraginik, baina beste faktore batzuk ere badaude. Igoera eta jaitsiera hauen arrazoien berri jakiteko asmotan, Arama, Gaintza, Ataun eta Olaberriako alkateekin izan gara.

1996ko errolda aztertuz, 91n baino 989 goierritar gutxiago gara. Ehuneneko-tan, % 2,41 gutxiago esan nahi du. Biztanle kopuru handiagoa duten herriak lau besterik ez dira: Aramak 15 gehiago; Gaintzak 13 gehiago; Zerainek 6 gehiago; eta Alzagak, 1 gehiago.

Gainerako herri guztiek beherakada izan dute. Nabarmenenak, portzentaiak kontutan hartuta, hauek dira: Olaberriak 113 gutxiago (-%10,6); Mutiloak 16 gutxiago (-% 8,69); eta Ataunek 151 gutxiago (-% 8,68).

Herri txikiak jaisten ari direnaren teoriak, Goierriren kasuan behintzat, ez du gehiegirik balio. Igoera izan duten 4 herriak, txikiak baitira. Mentalitate aldaketa, etxebizitza eza, uste baino heriotza gehiago gertatzea, emigranteak beraien lurretara itzultzea... bereziki arrazoi horiek aipatu dituzte alkateek. Jarraian dituzue euren hitzak.



● Arama:

Etxebizitzak egin direlako hazi da biztanle kopurua Araman, Joakin Mujika alkateak esan digunez. Kopuru hori gainera, oraindik ere handiagoa izango omen da, egiten ari diren etxeak bukatzen direnean. 2 pisuko 4 etxe egin ziren alde batetik, eta orain beste 4 ari dira egiten. Kanpotarrak etorri dira Aramara bizitzera, herriko gazteak oraindik ere alde egin beharrean daude. "Herriarrentzat ez da soluzioa izan, nahi zuten baina, etxeak oso garestiak ziren eta ezin zuten. Aztertzen ari gara moduko etxeak egitea, bertako gazteentzat", argitu digu.

Herria	1991	1996	Ezberdin	%
Alzaga	94	95	+1	+1'04
Arama	143	158	+15	+10'40
Ataun	1.739	1.588	-151	-8'68
Beasain	12.322	12.239	-83	-0'67
Ezkio-Itsaso	545	538	-7	-1'28
Gabiria	432	428	-4	-0'92
Gaintza	123	136	+13	+10'56
Idiazabal	2.057	2.020	-37	-1'79
Itsasondo	640	628	-12	-1'87
Lazkao	5.037	4.898	-139	-2'75
Legorreta	1.522	1.420	-102	-6'70
Mutiloa	184	168	-16	-8'69
Olaberria	1.123	1.010	-113	-10'06
Ordizia	9.325	9.115	-210	-2'25
Ormaiztegi	1.235	1.182	-53	-4'29
Segura	1.297	1.261	-36	-2'77
Zaldibia	1.582	1.572	-10	-0'63
Zegama	1.399	1.348	-51	-3'64
Zerain	227	233	+6	+2'64
GUZTIRA	41.026	40.037	-989	-2'41



● Gaintza:

Bertakoa gelditu eta kanpoko etorri. Horixe da Gaintzari gertatu zaiona. Inazio Jabier Garmendia alkateak adierazi digunez, mentalitate aldaketa nabarmena izan da Gaintzan. "Lehen herrian gelditzen zena base-

rian gelditzen zen, eta baserritik bizi behar ez zuenak kalera alde egiten zuen. Mentalitate hori aldatu egin da, kalean lan egin eta baserrian, herri txikian bizi baitira. Herri handiak eta herri txikiak, biak ezagutzen dituzte herriarrek. Herriko gazteak ikusten du herri handietan dagoen presio hori ez dagoela herri txikietan. Kaleko maila berdinean, bizi kalitate hobea dago herri txikietan. Behar duzun leku eta gauza guztietatik gertu zaude, kotxea edukita".

Gaintzako gazteek herrian bizitzen segitzeko as-

Argutiarren honen edizioa laguntzen.

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación

moa daukate. "Gazteak gelditzen badira, bizia ematen dio herriari eta aurrerako segida ere bada. Gainera jendea ere beranduago hiltzen da".

Gazte hauei, etxebizitzaren aldetik, aukera eman nahi die Udalak, herrian bertan etxebizitzak egiteko. "Lurjabeekin ari gara hizketan, lurrak urbanizatu eta etxeak egiteko erreztasunak emateko. Beldurra daukagu, etxeak egiteko erreztasun gehiegi emanez gero, bigarren etxeak egingo lirartekeelako, baina hori ez da herriarentzat ona, ez dio bizirik ematen, ez dira enpadronatzen... herriari ez dio horrek onurarik ekartzen. Bigarren etxe horrekin gainera, garestitu egiten dira etxeak", argitu du Alkateak. Hori bai, etxe berriak egiteaz gain, herri kaskoan dauden etxe hutsak edo zaharrak ere merkaturatu nahi dira, era horretan, herri kaskoari bizia emanez.



● Ataun:

Jaitsieraren arrazoiak sakontzea baino nahiago izan du Aitor Auzmendi alkateak, jaitsierari aurre egiteko zein asmo darabilzkiten buruan azaltzea.

Azken urteetan Ataunen arazorik nagusienetakoa etxebizitza berririk ez egitearena izan da. Orain, ordea, "iniziatiba publikoarekin

etxebizitzak egitera goaz, San Martinen 36 egingo dira eta San Gregorion beste 9". Dena den, "ez dut uste etxebizitzak egitea nahikoa izango denik. Bizileku eroso bat izateko beste zenbait osagai jarri behar dira. Maila horretan, azpiegitura mailan herria hobetzeko zenbait obra aurrera eramatera goaz: Aian aterpe bat egitera goaz, Arrondo-Astigarran espaloia egingo dugu, etxe berrien azpian zine-aretoa eta mediku kontsultegia egingo dira, herritarren pasealeku izateko San Martin eta San Gregorio arteko herri bide zaharra berreskuratzen ari gara..."

Ataun herri nekazaria izanik, Udala saiatzen ari da nekazaritzatik bizi direnei era desberdinetako laguntzak ematen, "dagoenari eusteko asmoa daukagu. Baina beste alor ekonomiko batzuei heldu beharra dagoela garbi ikusten dugu. Turismo proiektua esaterako hor daukagu. Bi elementu garrantzitsu ditugu: Aralar Parke Naturala eta Joxemiel Barandiaranek utzitako hondare guztia. Bi elementu horiek ardatz hartuta proiektu bat daukagu. Ikuspegi ekonomikotik begira ari gara turismoa planteatzen eta ikusten dugu herrian gaur egun dauden zerbitzu batzuk bideragarriak izaten lagunduko dugula, eta bestetik beste lanpostu batzuk ere sor daitezkeela horren inguruan. Horrek herriari aberastasuna ekarriko dio. Ur lantegiak ere lagunduko du jendea herrian bizitzen gelditzea".

Beste apustu bat ere badute ataundarrek: "azkene-ko urteetan bizi izan den



Joakin Mujika Aramako alkateak aitortu digunez, Araman etxeak egitea ez da herritarrentzat soluzioa izan, garestiegiak egin baitira gazteek erosi ahal izateko.

krispazio politiko edo tentsio giro sozial hori piskana normalizatzea. Herriko giroa lasaitzen saiatu behar dugu, bertan bizi garenok erosoago bizi gaitezen, eta kanpotik ere etor daitezten. Ez dauka zentzurik azpiegitura, zerbitzu, etxebizitza asko eskaintzeak, gero gure artean ondo moldatu behar ez bagara".

Azken datu bat: azkene-ko urteetan uste baino jende gehiago hil da Ataunen.



● Olaberria:

Jaiotza tasa bajuaz gain, bi arrazoi eman ditu Agustín Agirre alkateak: batetik, Iurre emigranteen auzoa izaki, jubilatuta eta euren herrietara itzultzea; eta bestetik, orain artean etxebizitzarik ez dela egin.

"Iurre auzoa da biztanle gehien bizi dena. Bertan bizi den jende asko kanpotik etorriak dira eta jubilatzen diren neurrian, beraien herrietara itzultzen dira. Baina etxeak ez dituzte saldu, noizean behin denboralditxo bat hemen pasatzeko mantendu egin dituzte. Beraz, etxebizitza arazoa hor dago lurren", zehaztu digu.

Herri kaskoan momentu honetan 20 etxebizitza ari dira egiten. Bere garaian herritik alde egin zuten gazteak itzultzen ari dira, eta gazteek herrian gelditu nahi dute. Hala ere, "jendeak etxebizitza gehiago nahi ditu. Herriko kaskoaren proiektua bukatzeaz dago, eta aztertu egin beharko da etxe gehiago non egin".

Etxeez gain, "azpiegitura eta zerbitzu aldetik ere eskaini egin beharra daukagu. Jendeak hemen bizi nahi du. Aparte egonagatik, Nazional Itetik gertu gaude, Beasaingo geltokitik ere bai... Eskualde mailako autobuz zerbitzu horrekin ere poliki geldituko da Olaberria", gaineratu du.

Loinaz Agirre

Ordiziako Jakintza ikastolako ikasle ohien elkartearen sortu nahi da

Ikasle ohi batzuen ekimenaren ondorioz, Jakintza Ikastolako Ikasle Ohien Elkartearen sortzeko asmoa dago. Ikastola sortu zenetik gaur arte ikasle ugari pasa da bertatik eta ikasketa epe hori amaitzean elkarren arteko lotura hori apurtu egin da. Hau dela eta, 8 ikasle ohi, 25. urtemugan egindako bazkariaren arrakastaren ondoren, elkarte moduko bat sortzeko asmoaz hitz egin eta orain gauzatzekotan dabilta.

Gauzak honela, adin desberdinetako zenbait ikasle ohiri ideia komentatu eta gero, harrera oso ona izan duela konturatu eta ekimena egi bihurtu nahi da. Ikastola urte haietan hain harreman estua izan ondoren tristea da arrazoi bat edo bestearengatik ikasleen arteko lotura hori galtzea, eta aldi berean Ikastolarekin apurtzea. Elkartearen funtsik nagusia, beraz, elkarren berri jakitea edo izatea litzateke, hainbeste urtetan eraikitako harremanak eta elkarren arteko erlazioak bizirik mantentzea.



Ikasle ohiak elkartzeko ekimenaren sortzaileak.

Ikasle Ohien Elkartearen Jakintzatik pasatako ikasle guztiek izango lukete kabida eta horregatik lehen eginbehar bezala, bakoitzari gutun bat bidaltzearen erabakia hartu dute ideiarene 8 sortzaileek. Askoren datuak faltako dira (norabide aldaketa, herriitik joan izana...), baina guztiengana heltzen saiatuko dira.

Beste Ikastola batzuetan martxan dagoen proiektua da hau eta guztiek helburu berbera dute, harremanak iraunaraztea, elkar ikusiz ez bada

ere behintzat elkarren berri izanaz. Hau dela eta, lehenik, Ikastolako datu basea osatu nahiko litzateke ondoren Elkartearen kide guztientzat, hau da, ikasle ohi guztientzat eskuragarri izateko asmoz (promozio afariak antolatze-ko...).

Jarraipena

Ikastolan aldizkaria ateratzen da urtean behin eta bertan ikasle ohiak tartetxeko bat utziko litzateke, edozein lan edo iritzi agertzeko nahia izango balu. Era berean, al-

dizkaria bera ere etxean jasoko lukete, Ikastolan gertatzen denaren berri izateko. Jakintzak urtean zehar hainbat ekintza antolatzen ditu eta hauetan ere parte bat izango lukete ikasle ohiak. Jakintza Ikastolak dituen lokalak ere eskuragai izango litzateke, bai bilerak edo beste gauza batzuk egiteko. Era berean, Jakintzako txandala edo beste hainbat material eskuratzeko aukera ere hor egongo da.

Ideiarene sortzaileak ahalik jende gehienengana hurbiltzen saiatuko dira eskutitzen bidez (denei ezin, batzuen arraztoa galduta baitago). Arrazoa bata ala bestea izanda berau jasoko ez bazenu eta ikasle ohi zaren bezala interesaturik bazeunde Ikastolako bulegora dei zenezake (160540) edo ideiarene sortzaileetako batekin harremanetan jarri: Klara (889333), Eugenio Arana (881430), J.R. Goñi (160118), Jon Aranburu (889897), Tomas Bosque (886099) edo Gari-koitx Telleria (885552).

Aitor Calvillo

UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ 88 28 21 - 16 07 06
ORMAIZTEGI

- ✓ Eskola eredu propioa, herrikoia eta anitza
- ✓ 2 urtetik - 18 urtera ikastetxez aldatu gabe
- ✓ Euskalduna eta eleanitza:

- ☞ Txiki-txikitatik EUSKARAZ BIZI
- ☞ 4 urtetik INGELERA
- ☞ GAZTELERA
- ☞ FRANTSESA

- ✓ IRAKASLEGO IRAUNKORRA eta ESPEZIALIZATUA
- ✓ ESTRAESKOLARRAK eta UDAKO EKINTZAK: Partaidetza handiarekin
- ✓ JANGELA, GARRAIOA eta HAUR ZAINKETA
- ✓ KALITATEA, emaila akademikoetan urtez urte frogatuz

JAKINTZA
IKASTOLA
ORDIZIA

☎ 16 05 40
Faxa: 16 07 90
Altamira Auzoa
ORDIZIA

ROSA MARI ZUBIARRAIN ERIZAINA ITZULI BERRIA DA RUANDATIK: "Azkenaldian zuri izatearen lotsa sentitu dut"

Munduko Medikak elkarteko kidea da Rosa Mari Zubiarraín olaberritarra. 1970az geroztik, Ruandan aritu izan da lanean. "Behartuta" itzuli da. Zein egoera utzi duenaren berri jakiteko, elkarriketatu dugu Rosa Mari.

- Zergatik itzuli zarete? Gogoz ala behartuta?

- Azkeneko erasoaldi hauegatik itzuli gara. Etorrerazi egin gaituzte, gu inoiz ez gara arriskuan egon, eta ni niregatik ez nintzatekeen etorriko. Nik 1970az geroztik ezagutzen dut Ruanda eta zurién aurkako erasorik ez da sekula izan.

- Zer aldatu da bada?

- Ez dakigu ziur nork egin dituen hilketa horiek, eta ez dakigu zein helbururekin egin dituen. Orduan, ez dakigu zer aldatu den. Oso diktadura gogorra bizi da, ez da txantxa. Irudipen bat, nahi duena egiteko zuririk ez dadila egon. Munduan ez da jakiten han zer gertatzen den, gu han ez bagaude.

- Zein egoera utzi duzue?

- Azalean nahiko egoera normala, baina zein normaltasun egon daiteke, 90.000 preso politiko dauzkan herri batean? Gerra ondorengo egoera hori da. Salaketa bat egin eta espetxera. Espetxean bizi duten egoera oso txarra da. Urtebete pasa aritu naiz beraiek sendatzen.

- Konponbiderik ikusten al da?

- Beraien egoeraren konponbiderik ez da ikusten. Gerra irabazi dute eta jaun

eta jabe sentitzen dira. Azpikoek ez daukate eskubiderik. Beraien legeak ere oso gogorrak dira. Adibidez, anaia baldin bada errudun eta kanpora aldegin da bada, bertan gelditu den anaia espetxeratzen dute, bestea ezin dutelako harrapatu. Azpikoek ixilik egon beharra daukate, beldur izugarria daukate. Gobernuak horrelako portaera daukan bitartean, han ez dago zereginik. Konponbidea beste aldekoekin, elkarriketak egin eta agintean besteak ere sartzea izan daiteke. Lanpostuetan ere bai, lanpostu ia guztiak boterean daudenek betetzen dituzte. Bi lagun hasarretzen direnean adiskidetzeko bidea, hitz egitea izaten da.

- Momentu honetan zein da hango arazorik larriena?

- Behartsu izatea. Gosea noiznahi sortzen da. Denak nekazaritzatik bizi dira eta gehiegi dira. Arazo horren irtenbidea jaiotzak gutxitzea izango litzateke. Familiako, batzaz beste, 7-8 haur izaten dituzte. Pobrezia bukatzeko beste neurri bat: jendea oso lurralde txikietan bizi da, eta bai Zaire, bai Tanzania, bai Ugandan, lurralde asko daude hutsik, kilometrotan ez da inor bizi, jendea sakabanatu egin beharko litzateke.

Etxeen arazoa konponetzen ari da. Kanpotik laguntza asko sartu da eta piskanaka egiten ari dira. Leonardo Esnaola lazkaotar mi-



Rosa Mari: "Garbi gelditu da beltzen bizitzak eta zurion bizitzak ez daukatela balore berdina".

siolariak esaterako, 40.000 hojaletazko tola eraman dituzte, etxeak estaltzeko. Tolak, zementu piska bat eta leihoak eta ateak ematen zaizkie, gero beraiek eraikitzeko. Laguntza asko iristen da hemendik. Karitas, Medicus Mundi, Eusko Jaurlaritza, Misiones Diocesanas, Gobernuz kanpoko erakundeek... bidalia.

- Leonardo Esnaola han gelditu da, ezta?

- Bai, eta bera ez da etorriko. 5 misiolari gelditu dira. Hango herritarrek jakin zutenean gu itzuli egingo ginelako, apaizak ere ba ote zetozen galdezka aritzen ziren. Ezezkoa erantzutean, asko lasaitzen ziren. Babesa ematen diegu. Jende xhearentzat beste munduko ezer ez dugu egiten, baina nik uste dut gertatzen denaren testigu xumeak garela. Zuriak han gaudelako berriak atera egiten dira handik. Bestetik, behartsuenentzako itxaropen bide gara. Adibi-

dez, behartsu bat gaitzotzen bada eta dirurik ez badauka, harek badaki dirurik ez daukalako guk ez dugula utziko sendatu gabe.

- Komunikabideak ez direla ondo portatzen diozu.

- Garbi gelditu da beltzen bizitzak eta zurion bizitzak ez daukatela balore berdina. 8 zuri garbitu dituztela eta denak aztoratuta. Eta han gau batean 50etik gora hil eta hemen ez da jakiten. Lehenengo mundu honek zerbait egin behar luke hori gerta ez dadin. Nahi balute, egin

dezakete, baina ez daukate interesik, haiek beltzak baitira. Azkenaldi honetan, zuri izatearen lotsa sentitu dut, hainbeste milaka hildako egon diren lekuan ez dutelako ezertxo ere egin, ez dutelako galerazi. Ilargira joateko dirua badago, armak sortzeko dirua eta modua badago. Hain gertu dagoen arazo bat ez dute konpondu nahi. Errurik handiena armak egiten dituenak du, ez dute apaingarrietarako egiten, saltzeko baizik.

- Itzultzeko asmorik bai?

- Ahalik eta azkarrena. Hiru hilabeterako dirua eta sendagaiak prest utzi ditugu. Proiektu bat martxan daukagu eta hori gauzatu nahi dugu: 7 gaixoetxe geure gain hartzea, hau da, Gipuzkoa osoko gaixoetxeak gure esku egotea bezala. Gu azken aldian begirale lanean aritu gara batez ere, jendea-ri erakusten, prestatzen.

L.A.

Erreketa baten historia

Gipuzkoako Kutxa, herriko banketxe bakarra, 3 hilabeteren buruan bi aldiz erre dute. Lehenengoa, 1996ko urriaren 13an izan zen. Garai hartan HBk atera zuen komunikatuak honela zioen:

1.- Aurtengo Santa Fe jaien egitaraua, luzeantxa izan bada ere, bette bettea izan dela uste dugu. Eguraldiaren hezetasuna hizpide nagusia izan bada ere, azkenerrako izan da berotsasunik, su eta guzti gainera. Hone-xegatik batez ere, bideratu nahi dugu idatzitxo hau. Kutxako bulegoetan kearra ikusi orduko, berehala konturatu ginen, Zaldibian ere "kale borroka" deitzen den ekinbidearen presentzia eta sua gure oinetaraino iritsi zela.

2.- Jai giroaren azken zukueta geundenean, gauza asko ohartarazi digu berehala: Lehenik eta behin konturatu gara giroaren gogortasunaren gorria aurrez aurre izatea zer den. (Gandiega poetak zioen, "gogorragoa giroa eta; gorriagoa orduan..."). Herriar batzuen nerbio puntua ere somatu dugu, batez ere gertakizunen inguruetan bizi direnena.

3.- Ohartarazi digu: día de la hispanidad, de la Guardia Civil de la raza española etabar. Alegia, espainiar nazionalismoa eta bere egun handiko ospakizunen ondarean geundela, alde batetik eta bestetik, Euskal Herria nazio independentea izan dadin, bizia eman duten eta une honetan baldintza gogorrenetan irauten -pareta tarteetan, askalo non... ari direnen espiritua, argia eta sua.

4.- Poliziak, moztorturik, tiroka, ... Euskal Herri-

ko hainbat tokitan ikusten ohituak gaude noski, baina, zirrara puntua jarri duena zera izan da: alegia gazte talde batek, nahiko ondo antolatuturik, aurpegiak estalirik "atxafuego" eta guzti aurre egitea polizi hoiei atzeraka eginaraziz. Suak su, gertatuak gertatu, gertakizuna gogorra denik ezin ukatu.

5.- Duela 1218 urte, Euskaldunek Karlomagno enperadorearen aurka harriak, azkonak, aizkoarak, etabar erabili zituzten ez baizen koktel molototvik orduan...

6.- Geroztik, hainbat gizalditan, Euskaldun askok, mota guztietako ekinbideak eta borroka egin badu ere herri honen duintasun, justizia, burujabetza eta euskalduntzearen alde, ez da aski izan nonbait.

7.- Besteak beste, izan direlako baita beste euskaldun batzuk ere, "pakea, pakea deiadarkatuz" aurrera egiteari uko egin diotenak edo oztopatu dutenak jakinaren gainean edo ustekabean. (Beti ere zapaltzaileen mesedetan). Pakea izango da; guk, ondorengoek eta ondorengo onorengoek askatasuna bere neurri zabalean irabazi eta zaintzen duten neurrian; ez bestela

8.- Adibide bat hartzearen: Zer pake uler daiteke esate baterako, Gaintzako Sokobioko mutil batek, polizia omen dela eta, Zaldibiko neska abertzale bat edo Ataungo mutil iraultzaile bat (edozer egin dutela ere), katez loturik, preso, Jaengo Guardia Zibilei entregatzen dienean Madrilgo Komisaldgian torturatzeko, gero Zamorako eta Madrilgo Juez eta Fiskalek juzkatu eta

kondenatu ditzaten?

9.- Gertatuak gertatu guk, ulertzen duguna adierazi nahi genuke behintzat. Lizardi Poeta tolosarrak ere, amona hilotza, sua eta Euskal pizkundera ederkiki asko josi zituen: "Hautsa pitinka urratu nuen / beldur, bera, / sua bizirik dago / galduak ez gera.

ZUTen mozioa

Urriaren 13ko erreketari hori dela eta, ZUTek segidako mozio hau aurkeztu zuen Udaletxean:

1.- Guztiz grabea eta inolako justifikaziorik gabeko ekintza basatia iruditzen zaio gertatutakoa.

2.- Ekintza kondenatu eta Txindoki etxeko bizilagunekin erabat solidarizatzen da ZUT.

3.- Hala ere, denetan grabeena gertaera hau dela eta HBk plazaraturiko komunikatua iruditzen zaio. Onartezina jotzen du ZUTek, bai bere tonu burlosoarengatik eta bai eman dion edukina kontutan harturik. Orain arte horrelako ekintzak esplikatuz edo justifikatzearekin konformatzen bazen, oraingoan beste pauso bat eman du: hori egin dutenei, herriro egin dezaten, laineza ematen bezala ari da.

4.- Orain arte HBk atera duen komunikatu beldurriena izateaz gain, zenbait zita eta aipu kontestutik kanpora eta faltseaturik daude.

Esan eta azaldutakoaren ondoren galdera hauek zuzendu nahi dizkio ZUTek Udaltzariari:

1.- Udalarari dirutan zenbat kostatu zaion gertaera.

2.- Ekintza horren aurrean ze jarrera daukan.

3.- Udalaren izenean kondenatu eta komunikatu bat plazaratzea proposatzen du.

Udalbatzako eztabaida

Mozio hau 1996ko urriaren 23ko udalbatzan tratatu zen. Honela dago jasorik egun horretako plenoari dagokion aktan:

Mozio honi erantzunez Herri Batasauneko zinegotziek adierazten dute berriek ez datozela bat ZUTen balorazioekin eta gertatzen ari zenaren berri izan zutenean alkatea nahiz Asun zinegotziak egindakoaren berri ematen dute.

Kutxan sua zegoela ikusi zutenean alkateak 088ra deitu eta suhiltzaileen bila joan zen udaletxera, nahiz eta aurkitu ez zituen.

Zubiondokoek arazoak zituztela abisatu zitzaientean, alkatea eta Asun berehala han aurkeztu ziren eta enkaputxatuei aurre egin zioten herriarrek sartzeko ari zirelako.

Laburbilduz beraien eskuetan zegoen guztia egin zutela adierazten dute Mozio 3. puntuari erantzunez azaltzen dute Herri Batasunak bere komunikatua atera zuela eta ZUT eta HB gai honekin ados jarriko ez direnez, alkateak proposatzen du ZUTen mozioa ez onestea.

Aipatu proposamena HBko 4 zinegotzien aldeko botoekin onetsia geratu da. ZUTeko 3 zinegotziek aurka botoa eman dute.

Erreketa berria dela eta, ZUTek ohar bat helarazi digu. Aldizkari honetako 4. orrian duzue, eskutitzen saillean.

Rufino Iraola Garmendia

ATAUN

Udalak, iaz hasitako bide honi jarraitu nahian, aurtan ere argazki lehiaketarako deialdia zabaldu du. Lehiaketa honen helburu nagusia Ataun kanpora begira eza-gutzeria ematea da eta, horregatik, irabazten duen argazkiarekin eta aukeratutako beste batzuekin Ataungo postalak egingo dira. Horien bidez, herriko txoko edo gauza berezienak, politenak... erakusteko.

Gaia edozein izan daiteke, beti ere, Ataun azaltzen bada. Lagungarri bezala, zerrenda hau proposatzen zaio parte hartu nahi duenari: antropologia (kobak, trikuharriak...), mitologia, baserria, paisaia (urtaro desberdinetan), euskal giroa, artzantza, Aralar, kaleak, eraikuntza historikoak....

Parte hartzaile bakoitzak gutxienez 3 argazki eta gehienez 9 aurkeztu behar ditu, horietan gai ezberdinak erabiliz. Koloretan nahiz zuribeltzean izan daitezke, baina 18x24 cm-tako neurrikoak. Argazkiak, 30x40cm-tako kartulina bati erantsita aurkeztuko dira. Lan honetan, jakina, ez da

norberaren izenik agertu behar.

Irabazleak 60.000 pezetakoko saria bereganatuko du, 25.000 pezetakoa bigarrenak eta 15.000koa hirugarrenak.

Lanak aurkezteko epea eta lekua, berriz, hauetxez dira: 1997ko abenduak 1 baino lehenago udaletxean. Epaimahaiaren erabakia hil bereko 15ren aurretik jakinaraziko da.

Aurkeztutako lanekin, gainera, erakustaldi bat antolatuko da.

Informazio gehiago nahi duenak, udaletxera joan eta lehiaketaren oinarriak eskatu besterik ez dauka.

Bisita gidatua Ataundik zehar

Otsailaren 7an Donostiako Amara Plaza hotolean emandako prentsaurrekoan, Goierri eskualdearen garapena bultzatzen duen GOIEKI garapen agentziak, turismoaren alde egin duen apostuaren barruan, bere azken saioaren berri eman zuen: Goierri ezagutu nahi duenarentzat, lau pakete tu-

Argazki lehiaketa



Jentilen etorrera 97

Urtero jentilen etorrera prestatzen aritzen direnen partetik ohar hau: aurtengoa antolatzen eta lehen urratsak ematen hasteko, datorren otsailaren 22an, larunbatean, 11:30etan elkartuko direla udaletxean. Antolaketa parte hartzeko interesa duen herritarrei dei egiten zaie bertara azaltzeko.

ristiko edo bisita gidatuen eskaintza. Eta hain zuzen ere, bisita gidatu horietako batek, *Aralar Parke Naturala eta Joxemiel Barandiaran* deiturikoak, Ataunera ekarriko du kanpotarra: S.Martin eliza, bertako organoa, Joxemiel Barandiarani buruzko bideo bat... ikusi ahal izango ditu; paseo naturaletik zehar herria punta batetik bestera erakutsiko zaio; edo Sastarriko kobaraino joateko balorerik baduen zirikatuko.

Gainera, bisitak irauten duen bitartean, pertsona batek gida lanak egingo ditu: kanpotarrei herria, bere ezaugarri edo berezitasunak, txoko eta etxe ederrenak erakutsiz edota jentilei buruzko istorioak kontatuz. Hortaz, herrian zehar ezezagun gehiegi dagoela iruditzen bazaizue ez larritu, ez da eta inolako erasoren seinale izango!

Josune Aldabe



Xikel

NEVES
BANATZAILEA

ARMAIRU
ENPOTRATUAK

- ✓ Barnizatuak
- ✓ Lakatuak
- ✓ Espilluarekin
- ✓ Persianilla

Senpere Merkatalgunea - 38 lokala
Erakusketa: 161606 - Mugikorra: 908 772107

BEASAIN



☎ 88 55 00 ORDIZIA

GOIERRITARRA



88 96 12



MUJIKA



BEASAIN

☎ 88 74 00

ZEGAMA

Bezperan berrogei bat lagun aritu ziren eskean etxez- etxe. Aurtengoan bapateko bertsoen orde, aurrez prestatutakoak abestu zituzten. Auzo bakoitzean bertakoren bati eskainitako bertsoak entzun ahal genituelarik. Esan, hemen bildutako dirua Segurako Egoitzara bidaltzen dela.

Ihauteriak

Otsailaren 7an ospatu genituen Zegaman ihauteriak. Arratsaldeko 2.30etan, Aitxuri Herri Eskolako haurrak herrian zehar ibili ziren mozturorik. Arratsaldeko 4etan, Guraso Elkarteak antolatutako, haur eta gurasoentzat txokolate eta bizkotxoak izan ziren plazan. 5.00etarako jende ugari bildu zen buruhandiekin korrika egiteko. Herriko Txistu-

lari taldeak lagundurik kalez kale ibili ziren.

Gauean, 9etan, Udal kiroldegian, urteroko afaria egin zen. Aurten 150 pertsona bildu ziren eta afalondoren Kultur Etxeak txokolate beroa eta bizkotxoak banatu zituen.

Ondoren urteroko dantza lehiaketa burutu zen. Lehenengo saria Aitor Arakama eta Azurmendik eraman zuten (urdaiazpiko bat) eta 2. saria Oihana Irigoras eta Amaia Urbizuk (gazta bat).

Garizumako hitzaldiak

Datorren otsailaren 24tik 28ra, biak barne, San Martin Parrokian, Garizumako hitzaldiak izango dira iluntzeko 8.00etan. Hizlaria, Iñaki Begiristain.

Eduarne Albizu

Santa Ageda



Kultur Etxeko parkea

Urteen poderioz eta bestelako zenbait "umeen" erabilpen txarraren ondorioz, Kultur Etxeko parkea erabat zahartua dago eta Udalak zahar-berritzea ekin dio.

Oraingoan, zorua gomazkoa ipiniko da, era honetara haurrek min gutxiago har dezaten erortzean.

Zahar-berritze hau udan edo San Bartolome aurretik egitekotan bazen ere, Udalak atzeratzea erabaki zuen, honen arrazoia, batez ere opor garaian "zer asma" dagoenak puska ez ditzan izan zelarik. Jakin badakigu, garai horretan izaten direla txikiziorik handienak gure herrian.

ZERAIN Sagardoa, trikitixa eta zozketak Olatzan

Sagardo denboraldia ireki zela bada hilabete. Olatzatik jakitera eman digutenez, egunero zabalik dago iluntzetan, asteazkenetan izan ezik. Larunbata eta igandetan eguerdietan ere bai. Etxeko dolarean egindako sagardoa, bakailaoa eta haragia dastatzeko aukera izaten da bertan.

Ostiraletan gainera, afa-

londoren, trikitixa izango da eta nahiko dantza egiteko aukera izango da. Umorre onena jartzen dutenen artean, Olatzako sagastietan bildutako saski bat sagar eta kiwiak zozketatuko dira.

Enkarguak beti bezala, 80 17 57 telefonoan jasotzen dira.

OLABERRIA

Urrezko ezteiak

Iontza baserriko Anttoni Lasa eta Andres Estenso-rok 50 urte egin zituzten ezkondata, joan zen urtarilaren 30ean. Andres Iontza baserriko semea da eta Anttoni, Idiazabalgoa. Meza, dantzariak, bazkaria... egun polita ospatu zuen bikoteak. Seme-alaba eta biloben partez, zorionak eta urte askotarako!



GOIERRIKO KANPO KOOPERATIBA

Ganaduzaleek ganaduzaleentzat sortutako kooperatiba

MOTA GUZTIETAKO pentsuak, ongarriak, lantresnak

Esuskal Herria Kalea
Industrialdea

☎ 88 04 15
☎ 16 07 07

ORDIZIA
OLABERRIA

GOIERRITARRA



88 96 12

BEASAIN

Loinaztar Martinen komikia kalean da



Josu Sarasola, Mikel Agirre, Itziar del Valle eta Migel Angel Nestar. Arg.: Juantxo Unanua.

Josu Sarasola eta Migel Angel Nestarrek egindako gidoiari Mikel Agirrek jarri dizkio marrazkiak. Diseinu grafikoa Itziar del Valleren esku egon da. Komikiak Loinaztar Martinen bizitza kontatzen du 20 orrialdeetan. Bukaeran galdekizun batetaz gain, San Martinen bizitzari buruzko kronologia eta bere zuhaitz genealogikoa azaltzen dira.

Loinatz 97 Kultur Elkar-tearen helburua Beasaingo patroia den San Martinen bizitza modu laburrean ezagutzera ematea da, batez ere, hurrek bere bizitza era errazean ezagutu ahal izateko. Aurrerago Martin Mendizabal frantziskotarrak 500 orrialdetako liburu bat kaleratu du Loinaztar Martinen bizitzari buruzkoa. Komikia liburuaren sinopsia dela esan daiteke.

Komikia irakurterreza

da, ironia pittin bat ere badu eta sintesi bat izan arren, San Martinen bizitzaz gauza asko jasotzen dira bertan. Marrazkiak bestalde, bineta handietan eginak daude eta ez dira oso kargatuak. Mikel Agirrek berak jakinarazi digunez, hurrengana errazago iristeko. Kolorea ordenagailuz eman zaio komikiari, lan hori Itziar del Valle egin du.

Komikia DBHko ikasleei banatuko zaie Beasaingo ikastetxeetan, gainera ikastetxe guztietan 50 ale inguru utziko dira nahi dituenak jaso ahal izateko, liburutegietan, Seroretxean eta Kutxako bulegoetan ere jaso ahal izango duzue kaleratu diren 2.500 aleetarikoa bat.

Urte osorako ekintzak

San Martin eguna izan arren Loinatz 97 elkar-tearentzat oinarri nagusia, Beasaingo patroia heriotzaren 4.

mendeurrena oroitzeko urte osorako ekintzak prestatu ditu.

Ekintza garrantzitsuenen artean, Beasaingo jaietan kaleratuko den CDa aurkitzen da. Herriko musikari ezberdinek parte hartuko dute disko honetan: Musika Eskolako ikasleak, Udal Txistulariak, Koxkola txarangak, Loinatz abesbatzak eta trikitilariak.

Martxoan Emakume Elkar-teak emakumearen astea antolatuko du, hau ere Loinatz 97 ospakizunaren barruan. Asmubek erakusketa, antzezlan bat eta hitzaldi ezberdinak antolatuko ditu.

Apirilean, Elkar-tean Astea ospatuko da. Herriko elkar-tean erakusketa egiteko elkar-te bakoitzak egiten duenaren adierazgarriak bilduko dira. Elkar-teen arteko Mus-Txapelketaren finala eta sukaldaritza ikastaroak ere izango dira. Elkar-te batzuk dagozkien gaien hitzaldiak antolatuko dituzte eta era honetara elkar-teen mundua ondo ezagutzen ez dutenak argiago ikusi ahal izango dute.

Urtean zehar gainontzeko ekintzen berri jasotzen joango gara. Posible da zenbait pilota partidu, saskibalo partidu, eta kirol ekintza garrantzitsu Beasainen ospatzea, baita Euskal Herriko Bertsolari Txapelketaren kanporaketaren bat ere.

Mendizale elkarte

Aizkorri Mendizale Elkar-teak dagoeneko hasi ditu aurtengo mendi irteerak. Elkar-te honek antolatzen dituen gaztetxoentzako irteerak ihauterietako igandean hasi ziren. Bidaniatik irten eta Mendikutetik pasatuz, Tolosara jaitsi ziren ihaute-riak ospatzera. Ekainera bitartean, ostiralero filmina erakusketa izango da elkar-tean, bertan igandero ibilbideen berri ere emango da.

Otsaileko hirugarren astebururako ibilbidea Beasainen hasi eta Beasainen bertan bukatuko da: Amundarain baseritik Zaldibiko Lazkaoetxe nekazal turismo etxera joango dira eta Lazkao menditik Oiangura jaitsiz herrira itzuliko dira.

Otsailaren 23an, Beasaindik Idiazabalgo Urbizu auzora joango dira, ondoren Olaberriarunzko bidea hartu eta herrira bueltatuko dira.

Elkar-teak bestalde, San Martin egunaren ondorengo igandean urtero bezala Zaharren ospitalera bisita egin zuen. Elkartetik kideak ospitalera abiatu ondoren, arratsaldea helduekin pasa zuten. Ihaute-riak zirela eta, moztar eguna ospatzen zen bertan eta giro apartan pasa zuten guztiek eguna.

Izaskun Salazar

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 88 04 53

BEASAIN

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

Orain **CHANEL** produktuak

San Inazio, 14 ☎ 8893 90 **BEASAIN**

ITSASONDO

Jokin Mujikari omenaldia

Otsailaren 8an Jokin Mujika txirrindulari ezagunari merezitako omenaldia egin zitzaion. Ohorezko aurrekua dantzatu ondoren, udalletxean hainbat opari eta plaka jaso zituen Jokinek. Ondoren ehun pertsonatik gora bildu ziren pelotalekuan bazkaltzeko.

Jokin omentzeko bere txirrindularitza ibilbide luzean lagun izan zituen hainbat pertsona bildu zen, bai txirrindulari, zuzendari, federazioko kide etabar. Jubeniletan munduko ziklo kros txapelketan bigarren egin zuenetik, errepideko profesional izan eta azkenik



mountain bikean olinpiadetan parte hartu arte hainbat lagun egin ditu itsasondorak. Hauek denek etortzerik izan ez bazuten ere, be-

raien agurra edo oparirentzat helduarazi zuten.

34 urterekin, txirrindugaietan milaka kilometro egin ondoren erretiratu be-

ria da Jokin, Atlantako joku olinpikoak bukatutakoan hain zuzen ere. Gaur egun Goierriko Lanbide Eskolan irakasle lanetan ari da eta horrez gain, Orbea mountain bike taldeko zuzendaria ere bada.

Bere ibilbidearen bukaran, balantze baikorra egin du Jokinek, gustora dago egin duenarekin eta berriro jaio ezker txirrindulari izatea gustatuko litzaiokeela aitortu du.

Aipatzekoa da omenaldi egunera eskuin besoa lotuta agertu zela, eskiatzen ari zela sorbalda atera baizitzaion.

IDIAZABAL

Gipuzkoa

mendiz-mendi

Kirol Elkarteko Mendi Sailak urte osorako programa bateratua antolatu du aurtengo. 12 ibilalditan, Gipuzkoako itzulua egingo da, GR-121ari jarraituz. Ibilaldi horietan GRaren marka zuri-gorri segituko zaie gehienetan, nahiz eta aldaketak egin ditzaketen, ibilbidea politagoa egin edota probintzi mugari gehiago lotzeko.

Dagoeneko bi ibilaldi egin dituzte, lehena egun erdikoa, Etxegarategi-Lizarrastira eta bigarrena egun osokoa, Lizarrastitik Ilarazura.

Egitekoak diren beste hauek ere egun osokoak dira:

Martxoak 9: Ilarazu-Arano.

Apirilak 6: Arano-Irun.

Maiatzak 4: Irun-Donostia.

Ekainak 1: Donostia-Zarautz.

Ekainak 29: Zarautz-Deba.

Irailak 7: Deba-Urkarregi.

Irailak 28: Urkarregi-Kanpantzar.

Urriak 26: Kanpantzar-Arlaban.

Azaroak 23: Arlaban-Malkorra.

Abenduak 21: Malkorra-Etxegarate.

Ibilaldi guztiak edo norberak nahi dituenak egiteko aukera izango da. Dena dela, irteraren batera joateko asmorik baduzue, Mendi Elkartekoekin harremanetan jarri besterik ez duzue.

Xabier Urteaga

ORMAIZTEGI Parrokiko

iazko diru gora-beherak

Iazko urteko Parrokiko diru gora-beheren emaitza baikorra izan da. Gastuak ordaindu eta soberan 25.000 pezeta izatea lortu izan baita. Gaur egun urtea egoera honetan bukatzea ez da baxtereterraz askotan.

Sarrerak Parrokiko kuenten eta elizan bildutakoaren bitartez lortu dira. Urtean zehar beharrezko eske batzuetarako ere dirua bildu da.

Ordainketen artean elizkizunetako eta elizako gastu guztiak sartzen dira. Horretaz gain, Pastoral zerbitzuak, elizbarrutiko kutxa, eskualdeko kutxa eta beharrezko eskeetarako zuzendu da gainerako dirua.

Guztira sarrerak bi milioi pezeta pasatxo izan di-

ra (2.004.646 pezeta). Ordainketak, berriz, ia bi milioioak (1.979.393 pezeta). Beraz, 25.253 pezetako soberako batekin bukatu da urtea Parrokiko kontuei dagokienez.

Beraz, herritarren esku zabaltasunaren bitartez, Parrokiko gastuak ordaindu, langabezian daudenei lagundu, mixioei esku bat bota, gosearen aurkako kanpainak burutzea lortu izan da besteak beste.

Elizako batzorde ekonomikoak eta orokorrean Parrokiak biziki eskertu nahi du guztien esku zabaltasuna.

Aitziber Murua

LAZKAO

Santa Ageda bezpera degu...



Andres Barandiaran, Jon Lasa eta Jon Agirre aritu ziren koplari Santa Ageda eskean.

Ohiturari jarraituz, aurten ere herritar ugari aritu da kantari Santa Ageda bezperan. Eguna nola igaro zen kontuan izanik --primeran hain zuzen-- badirudi, pixkanaka berreskuratzen ari dela urte batzuetan galtzeko arriskuan izan den ohitura.

Eguraldiak berak ere lagundu zien kantariei, herriko haurrei, esaterako. Talde desberdinetan bildurik, goizean zehar herri osoa zeharkatu zuten, eta ezin uka eskean ilusio handiz aritu zirenik.

Koruko partaideak ere aritu ziren kantari. Ohiturari eutsiaz, arratsalde partean kalera irten eta denbora luzez ekin zioten abesteari. Ahots leunak nagusi, jendearen txundigarri.

Aipatutakoez gain, beste lagun talde bat ere aritu zen eskean. Gazteez eta hel-

duez osatutako kuadrila hau urtero atera ohi izan da kalean baina azken 3 urteotan baserri-baserri ere ibiltzen dira inguruak animatzen, eta ez dirudi, ez, gaizki moldatzen direnik. Goizean bertan inguruko baserrietara joaten dira eskean. Lehenengo kantuak Altune baserrian eskaini eta gero, Lazkaomendiraino igotzen dira bertakoekin batera usadio zahar honi eusteko.

Aparteko giroa sortzen dute, soinu eta pandero-joleez gain bertsolariak ere bertan izaten baitira. Aurten, hiru izan dira koplatan aritu diren bertsolariak: Andres Barandiaran, Jon Lasa eta Jon Agirre. Baserri guztietan egin zuten saiotxo eta baserritarrek harrera ezin hobea eskaini zieten. Kuadrila osoaren kantuak ere atsegin izan zituzten.

Bazkal ondoren Zubierreka auzoko baserrietan kantatu ondoren herrian ere egin zuten saioa, kalean eta tabernetan.

Ikus litekenez, santa eskean aritzeko ohitura honek bere horretan dirau.

Talo jana Gerriko

Aurten, iaz bezalaxe, taloa jateko aukera izango da Gerriko eta Goiherriko Euskal Eskolaren eskutik. Otsailaren 28rako, ostirala, iragarri dute talo-jana antolatzaileek. 1.300 pezetaren truke bapo afaltzeko aukera dago; hona hemen menua:

- Lehenbizi, taloa hirugiarrearekin.
- Bigarrenik, taloa txistorrarekin.
- Hirugarrenik, taloa txokolatearekin.
- Azkenik, taloa esnearekin.

Taloa barra-barra, beraz.

Gustokoa baduzu, Gerriko txokora agertu zaitezke iluntzeko 9.00 etan. Gainera, talo-jan hau soinu eta pandero hotsek alaituko dute. Hori afari-garaian izango da. Afalostean, berriaz, kantu saioa izango da eta bertan jendearen artean orriak banatuko dira kantatuko diren abestien letrekin. Ondoren nahi izanez gero, nornahik bere dohaiak erakusteko parada izango du txisteak kontatuz, bertsoak kantatuz...

Afaltzera joan nahi duenarentzat izen emateko epea otsailaren 24ean bukatuko da.

Badatorrela Korrika!

Gaingan da, Korrika 10 edizioa. Hori dela eta, herritarrei antolakuntza-lanetan parte hartzeko deialdia luzatu zaie jada.

Otsailaren 12an izan zen lehen bilera. Honen ildotik, inork kilometrorik erosi edo antolakuntza lanetan jardun nahi badu, hurrengo egunetan egingo diren bileratara ager daiteke.

Korrika martxoaren 17an igaroko da Goierritik. Aurtengo edizioa ere arrakastatsua izan dadin guztion laguntza eskertzen dute antolatzaileek.

*Urko Irastorza
Koldo Urrestarazu*



- ✓ Agroturismo etxea: bi logela bikoitz bainuarekin.
- ✓ Etxeko sukaldaritza: babarrunak, baserriko oilaskoa, arkumea...
- ✓ Eguneroko menua 800 pzta. Karta 2.000 pzta bataz beste

MANDUBIKO BENTA

jatetxea

MANDUBIKO GAINEAN
Urolatik Goierrirako bidean

Tfnoa.: 88 26 73

SEGURA

Herriaren mugak ezagutuz



Jendeak ezagututako hainbat mugarri desagerturik badaude ere, antolatzaileek dozenaren bat zenbatu dituzte. Argazkian, Zeraingo muga adierazten duena, Ikorta bideko kaltzadan.

Idiazabal, Zegama, Zerain eta Mutiloarekin muga eginez, 9,2 Km² ditu Segurako herriak. Muga hauek, eta hori adierazten duten mugarriak ezagutzeko, Laiotz Herri Eskolakoak, aste kulturalaren barne eta kirol eskolarreko mendi irteera bezala, otsailaren 16an, 9:00etan irtengo dira plaza-tik.

Herriguneko plan berezia

Otsailaren 5ean amaitu zen, herriaren errehabilitazio plan aurreratuari sujerentziak egiteko epea. Guztira, 7 iradokizun jaso dira, partikularrak 4 eta alderdi politiko bakoitzak bana. Hauek aztertu ondoren, onarpen probisionala etorriko da, beste epe bat irekiz alegazioak egin, eta 3 administrazioek behin-betiko plana onartzeko. Plano ezberdinak eta hauei buruzko informazioa Udaletxean daude, ikusi edo aztertu nahi dituenarentzat.

Interesgune arkeologikoak

Kultura Ondare zentruko zerbitzu teknikoek, herriko kaskoaz gain, hainbat gune, balizko interesgune arkeo-

logiko bezala kalifikatu dituzte. Honen arabera, gune horietan, lurra altxatuz obraren bat egin nahi izanez gero, aurrez prospekzio arkeologikoa egin beharko du lurjabeak. Honela, balizko ondare arkeologikoak babestuko lirarteke.

Hari ikastaroa

Udalak antolatuta, aste honetan amaitu dira, 30en bat emakumek parte hartuta, 4 hilabete iraun duten pintura ikastaroak. Aldi berean, otsailaren 12an, Txanbolinpe gainean, hari ikastaroa aurkeztu zuten. Bertan, otsailaren 19an hasita San Joanak arte, asteazkenero 17:30etatik 20:00etara, Iñaxi Urreta zegamarra irakasle dutela, makramea, gakorratza (gantxilloa), etab. landuko dituzte. 12 aste iraungo duen ikastaroaren matrikula 1.500 pezetakoa da. 12an izena eman ez zutenek, asteazkenetan Txanbolinpe gainera joanda egin dezakete.

Bola-joko txapelketak

Goierriko IX. bola-joko lehiaketaren barne, otsailaren 22an, Segurako "Txoritegi" bolalekuan arituko dira Goierriko bolariak, 12:00etatik 13:00era eta

16:30etatik 17:30etara. Txapelketa honetan ari diren herritarrek, Xepeiño, Antonio eta Martxeliño Agirre osaba-ilobak eta Joakin Izagirre dira. Gipuzkoako taldekakoan ari direnak, berriz, aurrekoek gain, Jexux Mari Intxausti, Jokin Izagirre eta Imanol Agirre. Azken lehiaketa honetan, otsailaren 2an, Idiazabalen, Martxeliño Agirre, 2. geratu zen 3.arekin parekatuta.

Txirrindularitza

Denboraldia hastear dagoe-nean, lehian ibiliko diren herritarrek, Arkaiz Sodupe, Alex Rekondo eta Jon Garziandia dira. Arkaitzek otsailaren 15ean hasiko du denboraldia; 20 urte ditu eta 23 urtez azpikoetan 2. urtez arituko da Iberdrolan. Alex, 17 urterekin estreinatuko da txirrindularitzan 1go mailako jubenetan; otsailaren 23an hasiko duten denboraldia Iberdrolan korrituko du. Jonek, aurtan 16 urte egingo ditu eta martxoaren 8an hasita, 2. mailako kade-tetan ibiliko da, Iberdrolan.

Pelota

Klubaren arteko Euskadiko txapelketaren barne, Iñaki Artolak eta Ibon Etxeberriak, Abadiñon jokatu dute asteburu honetan, Atxartekoen kontra.

Futbola

Asteburuko emaitza: Jubenilak: Idiazabal 0-1 Segura.

Asteburuan etxean: Zapata: Errejonak: Segura-Lasarte (15:30). **Jubenilak:** Segura-Tolosa (17:15). **Jaia: Kadeteak:** Aizkorri-Hondarribi (11:30). **Infan-**

tilak: Aizkorri-Antiguoko (15:45).

Labur labur

● Beasaingo Euskara batzordeak antolatutako **"VII. Beasain Idazlan lehiaketa"**ren sari banaketa otsailaren 2an egin zen. 1978 eta 1980 bitartean jaiotakoan artean, "A" mailan eta olerki sailean, Etor Telleria izan zen irabazlea. Maila eta sail berean, Erkuden Elortzak aipamen berezia jaso zuen.

● Otsailaren 2an, Idiazabalen izandako **herri kirole-tan**, Segurako taldeak 2 segunduko aldeaz irabazi zion Olaberriakoari.

● Euskadiko Pelota Federazioak urtero ematen duen "Urrezko luma" saria, **Aitor Ugalde** segurarrak jaso zuen, otsailaren 12an, "Euskaldunon Egunkarian" pelota arloan egindako lanagatik.

● Udaletxeko langileek, Zerkalde, Arboladi, Bolaleku, Madura eta abarretako **eserlekuak konpondu eta margotu** dituzte. Frontoia- ren sarrerako argiak ere berri- tu egin dituzte.

● Gazte Asanbladak, **harizko pultsera ikastaroa** antolatu du. Ostiralero bil- duko dira otsailean zehar, 18:30etatik 19:30etara Ka- leguenen.

● "Iparra-Hegoa"ren 2. edizioa, martxoaren 3tik 9ra burutuko da Seguran. Bes- teak beste, Iparraldekoek Hegoaldekoen kontra joka- tuko duten futbol partidura- ko Elorripen eman behar di- ra izenak, entrenamendu batzuk egin eta norgehiago- ka ondo preparatzeko.

Joseba Telleria

ORDIZIA

Euskara gaitasun ona dute herriko gazteek

Hitzaro Euskara Elkartek aurkeztu berria du herriko gazteengan oinarrituriko azterketa soziolinguistikoa. Inkesta 6 eta 17 urte bitarteko gazte, gaztetxo eta haurrek bete behar izan zuten. Adin tarte hori aukeratzeko arrazoia garbia da, hauek demografikoki pisu handia baitute, etorkizuna dira eta hizkuntzaren berreskurapenean adin-talde estrategikoa baita. Inkestak herriko ikastetxeetan banatu ziren eta guztira 986 jaso ziren. Hauen azterketa egin ondoren, ondorioak positiboak: % 92,4ak euskara gaitasuna ona du.

Datu baikorra izan arren, beste irakurketa bat ere egin daiteke, izan ere adinean gora joan ahala, gazteek gaztelearekin duten harremana hazi egiten da eta beren burua euskalduntzat dutenen kopurua jaitsi. Eta azterketa horren ondoren atera daitekeen beste ondorioa zera litzateke, gazteek, nahiz B edo D eredukoak izan, ikastetxe barruan euskararekin harreman zuzena duten arren, hortik kanpora erabilerara asko jaisten dela.

Hitzarokoek egindako azterketa soziolinguistikoa urrunago doan arren, garbi adierazi zuten elkarteak non egin behar duen lana: eskolaz kanpoko iharduerak euskalduntzen.

Bideo emanaldiak euskaraz

Iaz izandako arrakastaren ondorioz, euskarazko bideo emanaldiak antolatzea erabaki du aurten ere Hitzarok. 4 saio izango dira, larunbat honetan hasita. Emanaldiak Barrenan izango dira, arratsaldeko 5etatik aurrera.



Kultur astea Urdanetan

Urdaneta ikastetxea aste kulturala ospatzen ari da. Gurasoentzat hitzaldiak, ihauteiak, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazok... denetarik izan da. Gaur, otsailak 14, arratsaldean, 3retan hasita, Gurasoentzat dantza taldearen emanaldia eta haurren ekintzak izango dira. Aurretik, 2.30etan, herri kirolak izango dira Oiangurenen. 4.30etan maratokia eta ondoren txokolate bero-beroa.

Momentuz datozen bi emanaldiak hauek dira: 15ean, 'Txerrikume atsegina' eta 'Daniel bihurria'. 22an, berriaz, 'Karlota Ahatea' eta 'Isidoro'. Saiok 3-8 urte bitartekoentzat zuzenduak egongo dira eta sarrera 100 pezetakoa izango da.

Santos txapelkun

Alegiko Santos sagardotegiak izan ziren XIII. futbito txapelketako txapelkunak. Penaltia izan ziren txapela norentzat izango zen erabaki zutenak. Lazkaoko Albokak 3 Santosek 3, izan zen arauzko denbora pasa ondorengo emaitza. Aurretik Badagok 3-2 irabazi zion Tximistari. Goleatzaile nagusien bi sariak Urbitarte sagardotegiko Alain Perez eta Alboka tabernako Ekai Irizarrentzat izan ziren. Txapelkunak eta antolatzaileak bazkaria izan zuten.

Futbol txapelketa

Bat amaitu eta bestea martxan da jadanik, hau da, XVIII. Lagunarteko Futbol

txapelketa. 18 taldek eman dute izena eta Uztailean bitartearaino iraungo du txapelketak. Urbitarte sagardotegia eta Peña Azotea talde antolatzaileek bi multzotan banatu dituzte taldeak: A multzoan, Olano, Haydaos, Badago, Peña Azotea, Usunbilla, Bustunmira, Peluqueria R. Matxain, Morapios eta Sylum; B multzoan, Txiki, Loretos, Laostiajode, Harrike, Urbitarte, Txola, Wiskas, OGT eta Vicuña Sport. Partiduak ohi bezala anexoan jokatuko dira larunbat arratsalde eta igande goizetan. Talde guztiei lehen partidurako izen-emate orria eraman beharko dute, 35.000 pezetarekin batera.

Mus txapelketa

Juan Mujika eta Jesus Soria idiazabalarrak suertatu ziren Argi-Berriko XX. Mus Txapelketa Azkarreko txapelkunak. 150.000 pezeta eskuratu zituzten txapelez gain. Guztira 117 bikotek hartu zuten parte. Bigarrenak Zaldibiako Roman Elo-

segi eta Jesus Gurrutxaga izan ziren; hirugarrenak Ordiziako Manolo Mujika eta eta Sixto Frias; eta laugarrenak Jose Auzemandi eta Juan I. Mujikak. Errifak ere hor izan ziren eta hona hemen zenbaki saridunak: arkumeei dagozkienak, 2.955, 3.097, 3.765 eta 0306; antxumeenak, 3.733, 0886, 0018 eta 3.566.

Gaztetxearen XI. urtemuga

Bi asteburuetarako antolatu ditu aurten ekintzak Gazte Asanbladak, Gaztetxearen XI. urtemuga ospatzeko.

Otsailak 15, larunbata:

16.00etan: Mus Txapelketa. Bikoteko 300 pezeta. Saria: afari bat. **23.00etan:** 'Las Brujas' eta Animese Martinezen taldeen kontzertua. Sarrera: 100 pezeta.

Otsailak 16, igandea:

18.00etatik aurrera: Gaztetxeko liburutegia kalera. **19.30etan:** Transito antzerkia taldearen 'Intrigados' lana. Sarrera: 100 pezeta.

Otsailak 21, ostirala:

19.00etan: Alternatiba Demokratikoaren aurkezpena. **23.30etan:** Kontzertu akustikoa: Fab.

Otsailak 22, larunbata:

17.00etan: Porra jaurtiketa, Gaztetxearen aurrean. **19.00etan:** 'Uña y carne' antzerki taldea. Sarrera: 100 pezeta. **24.00etan:** 'Malsonado y metralla' talde akustikoaren kontzertua. Sarrera: 100 pezeta.

Otsailak 23, igandea:

14.00etan: Bertso-bazkaria eta txiste kontalariak (600 pezeta). **18.00etan:** Goitibehera lehiaketa. **18.00etan:** Zinea kalean.

Aitor Calvillo

Erramun Irastorza: abenturazale, argazkilari, erreportari, suhiltzaile...

Zaldibiako depositutan hazia da eta etxetik aldegiten zuen eta edozein lekutara joaten saiatzen zen, bai erreka-zuloetara, bai mendira... Berak dionez, umeetatik horrela ibiltzeak beste pertsonalitate bat gehiago lantzen laguntzen du.

Beti eduki du bazter guztiak ezagutzeko grina. Oso gaztetatik hasi zen bidaiatzen. 14 urterekin Londren egon zen ingelesa ikasten, familia batekin. 20 bat urterekin eskaladako materiala fabrikatzeko enpresa montatzeko merkatua estudiantzera Australiara joan zen, hilabetez. Harkaitzean eskalatuz ibili zen.

19rekin Bartzelonan argazkilari ikasketak egin zituen. Gerora horrenbeste mugitzen lagundu dioten harremanak han egin zituen. Eskalada lehiaketetako argazkiak eta erreportariak egiten hasi zen, Italia, Suiza, Austria eta Frantzia inguru horietan. "Arlo horretan oso zaila da bizimodua hortik ateratzea. Nik denetik piska bat egin dut, momentuko eskariari erantzun eta hortik bizimodua ateraz", dio Erramunek.

Herrietako jaietan eskalada erakusketak egiten ari izan zen denbora batez. Hiruzpalau hilabetez lan egin ondoren, urtea, gerrikoa estutuz, bizitzen saiatzen zen. Eraikuntzan eta basolanean ere ibilia da, besterik ez zuenean. Azkeneko bi urteetan errazago

du: "suhiltzailea naiz, eta diru eta denbora aldetik oso konbinazio ona daukat".

Itsasoa festa

Bi urte hauetan hainbat bidai egin du. Iaz Finlandiara gonbidatu zuten eskaladako lehiaketa bat antolatu zutenek, hitzaldi bat emateko, gastu guztiak ordainduta. Lehiaketa itsasoa 10 pisuko trasalantiko batean egin zen. Honela deskribatu digu itsasontzi erraldoia: "Astean zehar garrario lana egiten dute itsasuntzi horiek, eta gero asteburuetan parranda giroko herri anbulante maritimo bezala funtzionatzen dute. Ostiralean sartu eta hantxe pasatzen dute asteburua, dantzalekutik dantzalekura, ikaragarri edanez".

Handik piska batera Greziara joan zen, ordiziar batekin batera, monumentuak ikustera. Handik Venezuelara, oihana eta kostaldea ezagutzeko aukera izan zuen. "Hango jendearekin oso harreman aberasgarriak egin nituen. Benta batera joan eta dependientea itzalean etzanda zegoen. Denda barrura sartu, baina gizona ez zen sartzen. Kanpora atera ginen ea atendituko ote gintuen, ezetz esan zigun. Zergatik galdetu genion, eta beroa egiten zuelako erantzun zigun. Oihana oso handia da, oso itzaila. Ez da gauza handirik ikusten, baina hotsak asko entzuten dira, fauna ikaragarria egon behar du derri gor. Politena Cariben buze-



atzea da. Ura epel-epela eta kriston fauna dago, zoragarria".

Aconcagua eta Himalaya

Ilbeltzean, Aconcaguan izan ziren, Pedro Garcia ordiziarra eta biak. Eguraldi txarra izan zuten eta saiatu arren ez zuten Amerikako gailurra igo.

Ekainean Himalayan izan zen, bakarrik. Mendia ezagutu eta treckinga egiteaz gain, jendearekin asko integratzeko aukera izan zuen. "Familia ezberdin batekin pasatzen nuen gaua. Lama batekin aritu nintzen hizketan hiruzpalu orduz. Erlijioaz hango jendea buruz neuzkan ideiak erabat hautsi zizkidan. Erlijio fanatikoa zegoela uste nuen lekuan, erlijio soziologikoa deskubritu nuen. Garraiantzia gehiago ematen die, Jainko bat badela sinetsi, goratzeari... baino, beraien espirituari, pentsakerari. Oso irekiak eta ulerrak dira sinestunak ez diren pertsona batekin".

Costa Bravan egon zen bi astez: urpekari ikastaro bat egin zuen, itsas-azpiko bi-zia ikusiz. "Ur-azpian hegan egiten ikasten da", dio. Parakaidismoko ikastaroa egin zuen bestea. "Ikaragarri tentsoa da. Lauzpabost segundutan erortzeko gehieneko abiadura hartzen da, 180 kilometro orduko. Segun zein posturatan 300eneko abiadura har dezakezu. Abiadura horretan 1.500 metrora parakaidasa ireki bitartean, minu-

tu bat irauten da. Puentingean erortzen segundu bat edo bi pasatzen bada, hemen minutu bat. Lurreratzean konturatzen da, hegazkinetik atera eta lehenengo hiru segundutan abiadura maximo hori hartu bitartean, begiak zabalik eraman dituzula, begitatiek informazioa sartu zaizula... baina besterik ezer ez. Ez zara kapaz izan mugimendu bat egin edo arnasarik hartzeko. Denbora horretan blokeatuta egoten zara", deskribatu digu ordiziarrek.

Afrikara joan zen gero. Berebereak eta basamortua ezagutu nahi zituen, nola bizi daitekeen. Basamortuan galduta ere ibili zen.

Ezagutu nahi dituen parajeak ondorengoak dira: Hegoaldeko Poloa, Canadian egonaldi luze bat ere egin nahi luke, Alascatik Californiara gurutzatu... Eta bere azken ametsa ilargitik lurra ikustea. "Ezinezkorik ez dago", dio Erramunek.

Ander Mujika

Joxe Ramon Agirre 'Marron'ek itsasoari buruzko diaporama



Bizkaiko kostatik hasi eta Lapurdirainokoa pasatu du herriz herri Marronek, arrantzaleak portura iritsi eta zein fase dauden, kaiako bizimodua aztertuz. Marea bat egin zuen 16 bat egunez, beraien eguneroko bizitza nolakoa den ikusiaz. Herriko giroa, familiako giroa dena isladatu nahi izan du, arrantzaleen bizitza eta izakera. Gidoia egiten Mikel Mendizabal gidoigileak lagundu dio, bertan arrantzak gure kultura eta historian zer esan nahi duen azaltzen da.

-Zein ezaugarri ditu lanak?

-Formato panoramikoan dago eginda eta pantaila handian proiektatua, oso sentsazio polita sortzen du. Audio aldetik ere estudio batean egin dago, emakume eta gizon baten ahotsarekin. Osotasunean goxoa geratu da. Jendeak mendiko galetatik ezagutzen nau eta apustu bat da. Ezin da asmatu erakargarria izango den, urrutiko itsaso bateko gaia balitz jende gehiago erakarriko zuen, badirudi askotan bertakoa ez dela estimatzen. Kostaldean bada interesa baina barru aldean zalantza gehiago ditut.

1.500 argazki inguru atara nituen eta horietatik 420 aukeratu ditut. Lan txukuna egiten saiatu naiz, era profesionalean, diru asko gastatzen da ondo egiteagatik eta orain lana kaleratu, emanaldiak egin nahi dira. Garai batean Txinara joan diapositiba emanaldia prestatu, proiektorea besapean hartu eta joaten ginen, gure bidaia kontatzera. Jendea modu horretara hezi da eta horrekin hautsi nahian gabiltza. Askotan ezaguna bazara deitzen zaituzte, baina zer eskaintzen duzun kontutan hartu gabe.

-Nola ikusten du Ataungo Aiako batek itsasoa?

-Itsasokoentzat barruko bizimodua ezezaguna da, eta alderantziz. Gaur egun komunikabideak direla eta, gutxiago, baina itsasoko bizimodu hori oso urruti geratzen zaigu. Kilometro gutxira egon arren, bi mundu oso ezberdin dira. Base-ritar batek edo lantegian lan egiten duen batek beti dauka bere ingurua, familia, lagunak; arrantzalea 50 metro karratutan bizi da lankideekin. Gainera gaur egun, oso momentu zailak ari dira pasatzen arrantzaleak.

-Zein harrera izan du?

-Mutrikun bakarrik eman dut eta harrera ona izan du. Orain zabaltze lanean ari naiz. Doan diren emanaldiak errez lortzen dira, kultur asteen osagarri, betegarri gisara. Jendea ez dago ohituta sail bat egin eta aurrekontu baten barruan sartzerara. Jendeak eskatzen du

baina kostata, konbentzitu egin behar dituzu.

Orain maiatzean K2ra goaz eta dena batu zaigu. Bitartean zer harrera duen ikusi behar. Ondoren, K2ko beste emanaldi bat prestatzeko asmoa dudanez gauzak nahastu egingo dira.

M.A.

Himalayara K2 igotzeko asmoz

Marronez gain, Mikel Saez ordiziarra, Alberto Zerain eta Juan Vallejo arabarrak doaz K2ra. Baimena konpartituz beste hirukote bat gehitu zaie baina bakoitza bere aldetik doa.

-Noiz zoazte K2ra?

-Aspalditik genuen asmoa baina orain jakinarazi da, piska bat babestu nahiean ari naiz. Jendeari gauza espektakularrak gustatzen zaizkio, eta jendearen ahotan egoteak erresponzabilitate apur bat sortarazten dizu. Maiatzean goaz, maiatzaren bukaerarako gestio guztia egin eta ekainaren lehen astean oinarritzko kanpamenduan egoteko asmoa dugu. Beti bezala, inguruko mendietan aklimatazioa egiten hasi eta dena ondo badoa ekainaren bukaera edo uztailaren hasera aldean gailur inguruan izatea espero dugu. Aiako festa inguruan, gogoratuko naiz bai festetaz. Juanito Oiarzabal, Kike de Pablo eta Inurategi anaiak igo ziren bidetik dugu asmoa. Bide seguruen bera da eta gaur egun bide arrunta bihurtzen ari da.

-Nola ikusten duzue igoera?

Mendi honek oso historia iluna du eta jendeak beti esaten dizu erreparoarekin hartzeko. Inponitu egiten du baina eguraldiak lagunduz gero eta fisikoki eta buruz ondo egonez gero gauzak ondo aterako dira. Ez goaz %100ean itsu-itsu gailurra egitera. Mendiak uzten badigu igoko dugu eta bestela itzuli egingo gara. Mendiak beti izaten du bere magia eta batez ere azken metro horietan, ekaitzak direla edo mila eragozpen direla, indarrak joan egiten dira eta ia eginda dagoela uste denean mendia tranpa bihurtzen da. Gauza horiek kontutan hartu behar dira. Askok exigitzen duen mendia da eta ondo prestatuta joan behar da.

-Prestakuntza lanak nola doaz?

Ilusioz eta abiatzeko gogoarekin nago. Egun hauek izaten dira okerrenak arazo burokratiko guztiei aurre egin behar baitzaie, telefono asko, bilera asko. Añosluz Bilboko bidai agentziaren laguntza izango dugu. Telefono bat eramango dugu eta hemendik azken momentu horiek zuzenean jarraitzeak presioa sortzen du. Bideoan ere filmatu behar da. Patrozinatzaileak sosak jartzen baditu, zuk lan hori egin beharra duzu.

BEASAINGO IKASTOLA

Guraso, ikasle eta irakasleen ilusioaren ilatiak biztua

Gure berri izan nahi baduzu
jo telefono hauetara

☎ 889617 / 885312

*Hitzegiteko ordua
elkarrekin izendatuko
dugu*

● 2 URTEKO IKASLEENTZAKO GELA

● ESKOLA ORDUZ KANPO

✎ Estudio gela

✎ Informatika eskola

✎ Liburutegia

✎ Hizkuntz eskola


✎ Kirola euskaraz

● GURASO ESKOLA

● GARRAIO ETA JANTOKI ZERBITZUA



*Korapiloak askatzen dakien
irakaskuntza*





CAFeko bulego teknikokoak 1955ean

CAFeko bulego teknikoko artxibari lanetan aritzen zen Aquilino Rodriguez erretiratu zenean egin zitzaion omenaldian ateratako argazkia da. 1955eko martxoaren lehen ataratakoa.

Goitik behera eta ezkerretik eskubira: Jesus Mate, Jose Antonio Gaztañaga, Vicente Blanco, Franzisko Sarriegi, Pepe Erauskin, Jose Mari Martinez, Esteban Sarriegi, David Izquierdo, Tomas Mentxaka, Jose Luis Agirre, Pepe Larrañaga, Jose Antonio Apalategi, Jose Mari Aranburu, Eduardo Lasheras, Juan Jose Lizarraga, Jose Ramon Goñi, Jesus Mari Calvillo, Luis Elizegi, Andres Aranburu, Ezequiel Barrigon, Antonio Vitoria, Luis Arratibel, Jesus Mari Garijo, Joakin Hernandez, Angel Sanz, Angel Garcia, Domingo Sarriegi, Inazio Iraola, Juan Torres, Bernardo Larrañaga, Juan Auzmendi, Aquilino Rodriguez, Indalezio Retana, Roberto Ezkai, Aquilino Merino eta Jose Latorre.

18 eta 30 urte bitarteko gazteentzat.


- Interes-tasa berezia.
- Libreta edo taloitegia aukeran.
- 50.000 pta.ko kreditu iraunkorra.
- Dohaneko ServiRed Txartela.
- Lehentasunezko interesa kreditu hipotekario eta pertsonaletarako. Eta ikasketetarako kreditua 5 urtera.
- Bidaiak eta hizkuntz-ikastaroak atzerrian.
- Gaztearentzako informazio-telefonoa 900 20 00 00.



**Euskadiko
Kutxaren
Kontu Gaztea.
Zerbitzuetan
osatuena.**


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA





SAGARDOA

TXOTXETIK GOIERRIN

SAGARDOATEGIRA BAZOAZ,
IBILI LASAI,
GIDATZEA GURE KONTU!
12 plaza arte.



☎ 80 02 49
☎ 908 - 77 06 30
IDIAZABAL



☎ 80 00 75
☎ 908 - 97 28 28
ZEGAMA

TAXIAK

BEGIRISTAIN

Egunero zabalik 19etatik 23etara
Igandeetan itxita
Eguerdietan enkarguz

☎ 65 28 37

IKAZTEGIETA



ETXE-ZVRI
SAGARDOATEGIA

☎ 88 20 49

OLABERRIA

ZALBIDE
SAGARDOATEGIA



Astegunetan 19:00etatik aurrera
Asteburuetan eguerdi eta iluntzean
Txitxarroa eta arraiak parrilan

☎ 65 21 76

ABALTZISKETA

KORTA

Menu berezia 2.200 pzta.
Tortila, txuleta indibiduala, gazta,
menbrillu eta ardo edo sagardoa

☎ 88 71 86

GABIRIA



Sagardotegia, jatetxea
Logelak

☎ 65 40 05

ABALTZISKETA

Olagi



Urte guztian zehar zabalik

☎ 88 77 26

ALTZAGA

OTATZA

Aste guztian zabalik, asteazkena ezik
Larunbat eta igandeetan eguerdiz ere
irekita (asteaz zehar enkarguz)

Txotx denboraldia 17tik zabalik

☎ 80 17 57

ZERAIN



Sagardotegia

aulia

☎ 80 60 66

LEGORRETA

TXERTAKADI

Eguneroko menua. Eguerdietan eta
iluntzean, 9etatik 11etara zabalik

Enkarguz edozein menu prestatzen
da ospakizunetarako

☎ 16 13 59

ZALDIBIA



TXIMIETA

Sagardotegia

Egunero zabalik, eguerdi eta gauean

Gudarien Etorbidea

☎ 88 11 28

ORDIZIA

URBITARTE



☎ 18 01 19

ATAUN



ERRETEGIA
SAGARDOATEGIA

KATTALIN

Txotx denboraldia zabalik

Antzizar auzoa

☎ 88 92 52

BEASAIN